ARABAKO FORU ALDUNDIAREN GOBERNU PLANA

2023-2027 aldirako Gobernu Plana

araba álava
foru aldundia diputación foral

AURKIBIDEA

1. SARRERA 3

2. ARABA LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA 4

3. ARABA KOHESIONATUA ETA INKLUSIBOA 19

4. ARABA BERDEA ETA PLANETAREKIN KONPROMETITUA 37

5. ARABA OREKATUA, POLIZENTRIKOA ETA ANITZA 44

6. ARABA ONDO GOBERNATUA 56

7. PROIEKTU ESTRATEGIKOAK 66

8. SEKTOREEN PLAN ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA ESANGURATSUAK 70

araba álava
foru aldundia diputación foral

2023-2027 GOBERNU PLANA

Arabako Foru Aldundiaren 2023-2027 legealdirako Gobernu Plana, etorkizuneko erronkei aurre egiteko gure Lurraldearen garapen jasangarrirako ibilbide estrategikoa marraztuko duen dokumentu giltzarria da.

5 ardatz edo zutabe nagusitan egituratua, eta aldi berean, **35 helburu eta lehentasunezko 99 ekintza biltzen dituen bilduma baten bidez zabalduta**, plan honek egungo testuingurutik sortzen diren aukerei erantzun eraginkorra ematea nahi du, eta bai eta gizarte eta administrazio publiko gisa ditugun erronka nagusiei heltzea ere.

Ekintza guztiak nahi dugun Lurraldearen etorkizuneko ikuspegiarekin bat datoz, eta islatzen dute Foru Aldundiak Arabako eta bertako biztanleen aurrerapen eta ongizate jasangarriarekin duen konpromiso etengabea. Giza garapen jasangarriaren tasarik altuenak lortu nahi dituen Lurraldea, eta baita komunitate sendo eta kohesionatua.

Aurrekoa lortzeko, eta garapen egokiaren oinarri gisa erakundearen kalitate instituzionala hobetu behar dugula aintzat hartuta, Arabako Foru Aldundiak eboluzionatu eta garai berrietara egokitu nahi du Gobernu onaren printzipioei erantzun egokia eman ahal izateko.

Dokumentu hau elkarlanaren eta ulermenaren bidez garatu da, eta balio horiek gainontzeko gizarteari helarazi ere nahi ditu. Gobernu plan honek, beraz, hurbiltasunetik eta benetako ezagutzatik, bai gure Herrialdeak baita gure Lurraldeak dituzten arazo eta erronka nagusiei aurre egitea du helburu.

99 ekintzak lehen azaldutako 5 Ardatzetan banatuta daude:

LEHIAKORRA ETA BERRITZAILEA
8 helburu estrategiko eta 24 jarduera-ildo

KOHESIONATUA ETA INKLUSIBOA
11 helburu estrategiko eta 28 jarduera-ildo

BERDEA ETA PLANETAREKIN KONPROMETITUA
4 helburu estrategiko eta 12 jarduera-ildo

OREKATUA, POLIZENTRIKOA ETA ANITZA
8 helburu estrategiko eta 19 jarduera-ildo

ONDO GOBERNATUA
4 helburu estrategiko eta 16 jarduera-ildo

Araba Lehiakorra eta Berritzailea

1. ardatza

araba álava
foru aldundia diputación foral

Araba Lehiakorra eta Berritzailea Ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H1.1	Enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzea ekonomia erresilientea eraikitzeko	J1.1.1	Startup berriei eta horiek sendotzeari laguntzea, finantzaketaren, azelerazioaren eta merkatura hurbiltzearen bidez: Lurralde ekintzailea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J1.1.2	Berrikuntza eta digitalizazio kolaboratiboko ekosistema publiko-pribatu berriak sortzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J1.1.3	Karbonogabetzearen, nazioartekotzearen eta kudeaketa aurreratuaren aldeko apustua, Arabako produkzio-sektoreak hobetzeko palanka lehiakor gisa	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
H1.2	Araba inbertsioetarako eta doing business-erako aukera-lurralde gisa kokatzea	J1.2.1	Eskualde bakoitzaren espezializaziorako eta lehiakortasun ekonomikorako ahalmenak indartzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J1.2.2	Gasteizko nodo logistikoa sustatzea korridore atlantikoan funtsezko lotura gisa	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J1.2.3	Gasteizko aireportua lurralderako sarrera eta garapen ekonomiko eta industrialerako gune gisa sendotzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J1.2.4	*Doing business*-erako eta Lurraldera inbertsioak erakartzeko esparru erakargarria ezartzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J1.2.5	Proiektu berrietarako lurzoru industrialaren eskuragarritasuna eta espazioen kudeaketa jasangarria bermatzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
H1.3	Garapen jasangarrirako etorkizuneko sektore eta teknologia estrategikoak sustatzea	J1.3.1	Sektore estrategikoei laguntzea, berrikuntzarako eta azterketa teknologikorako eremu eta interesguneak garatuz	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J1.3.2	Berrikuntza eta teknologia maila handiko sektore ekonomiko berrietara dibertsifikatzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
H1.4	Arlo estrategikoei lotutako talentua hezi, atxiki eta erakartzea	J1.4.1	Talentua sortzeko, atxikitzeko eta erakartzeko ingurune erakargarri baten garapena: Talentuaren 0 kilometroa	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna - Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
		J1.4.2	Enpresa eskariaren eta prestakuntzaren arteko batasuna	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa

Araba Lehiakorra eta Berritzailea Ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H1.5	Araba turismo jasangarri eta irisgarriaren arloan liderra den Lurralde gisa kokatzea	J1.5.1	Lurraldearen sustapena estatu eta nazioarteko mailan	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
		J1.5.2	Produktu propioa sortzea eta Lurraldeko eskaintza turistikoa zabaltzea	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
H1.6	Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza eta dibertsifikazioa bultzatuz, jasangarritasuna jarduera osoaren ardatz gisa hartuta	J1.6.1	Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza, dibertsifikazioa, eraldaketa eta zuzeneko merkaturatzea bultzatuz, jasangarritasuna jarduera osoaren ardatz gisa hartuta	Nekazaritza
		J1.6.2	Trantsizio energetikorako praktikak ezartzea	Nekazaritza
		J1.6.3	*Smart Farming* tresnen ezagutza eta txertaketa sustatzea	Nekazaritza
		J1.6.4	Abeltzaintzako jardueran biosegurtasuna sustatzea	Nekazaritza
		J1.6.5	Enpresa eraldatzaile berrien ezarpena sustatzea	Nekazaritza
H1.7	Arabako Errioxa mahastizaintzako eta ardogintzako bikaintasuneko eskualde bihurtzearen aldeko apustua	J1.7.1	Ezaugarri bereziak dituzten mahasti tradizionalak babestea	Nekazaritza
		J1.7.2	Arabako Errioxako ardoen bereizketa sustatzea eta haien kontsumoa sustatzea	Nekazaritza
		J1.7.3	'EDA Edariak eta Ardoa Drinks & Wine Campus' mahastizaintzako eta ardogintzako bikaintasunaren indargunea martxan jartzea	Arlo Estrategikoak
H1.8	Arabaren garapen jasangarrirako finantza, zerga eta araudia sendotzea	J1.8.1	Zerga araudia: Arabako Lurraldearen erronka berrien berrikuspena eta eguneratzea	Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak
		J1.8.2	Europako finantzaketa lortzea sustatzea	Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak

H1.1 Enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzea ekonomia erresilientea eraikitzeko

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.1.1 Enpresa-proiektu berriei eta horiek sendotzeari laguntzea, finantzaketaren, azelerazioaren eta merkatura hurbiltzearen bidez: Lurralde ekintzailea	Enpresa eta enpresa-proiektu berriak sortzen eta finkatzen laguntzea, batez ere Lurralderako lehentasunezko sektore eta teknologiei lotuak, hiru lan-bideren bidez. Lehenik eta behin, Araban **enpresa berriak sortzen eta finantzatzen laguntzeko mekanismoak indartuz**, Arabako ekintzailetza-ekosistemarekin lankidetzan (udalak, BIC Araba, ezagutzaren eragileak, elkarteak, etab.), laguntza-zerbitzuak emateko, eta finantzaketa publiko-pribatuko formula berritzaile bultzatuz (*crowdfunding* sistemak, *Red Alavesa de Business Angels*, hazi-kapitaleko funtsetan parte hartzea, fiskalitatea, etab.) enpresa-proiektu berriei laguntzeko. Bigarrenik, **ekintzaileei proiektuen inkubazio eta azelerazio espazioetarako sarbidea erraztuz**, eskualdeko ekintzailetza-espazioen sustapenari eta lankidetzari esker, Udalekin, Kuadrillekin eta BIC Arabarekin lankidetzan. Gainera, pertsona ekintzaileei arreta emateko gune berriak sortuko ditugu, bizkortzeko espazio eta zerbitzu aurreratuak dituztenak, eta Lurraldean erreferente izango direnak. Eta azkenik, **kultura ekintzailea sustatzea eta ekintzailearen figura balioestea,** *Araba Emprende*ren laguntzarekin eta kultura hori sustatzeko lan egiten duten eragileekin hitzarmenak eguneratuz.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	
J1.1.2 Berrikuntza eta digitalizazio kolaboratiboko ekosistema publiko-pribatu berriak sortzea	Arabako enpresen digitalizazio- eta berrikuntza-prozesuei laguntzea, lehiakortasuna areagotzeko bitarteko gisa, ikuspegi bikoitz batetik: batetik, Arabako ETEak berrikuntza-zirkuituetan sar daitezen lortzea, Innobasque edo BRTA sarea bezalako eragileekin elkarlanean eta, bestetik, Arabako Foru Aldundiak berak tokiko enpresa eta startupekin lankidetzan berrikuntza gara dezan lan eginez. Lehenengo ikuspegiari dagokionez, **Arabako Innova Laguntzen** deialdia indartu egingo da Arabako enpresetan berrikuntza eta digitalizazio proiektu pilotuetarako lehentasunezko laguntza mekanismo gisa, laguntza horiek Lurralde osoko enpresetara hurbilduz, haietarako sarbidea erraztuz eta laguntza-mekanismo berriak abian jarriz, balio erantsi handiko eta berrikuntza-maila handiko proiektuak bultzatzeko. Digitalizazioari dagokionez, **'Industria 4.0 – Araba 4.0´ programa berria** martxan jarriko da**,** enpresetan kultura digitala sortzeko eta enpresetan digitalizazio-behar komunak identifikatzeko, startupek eta beste hornitzaile teknologiko batzuek landu ditzaketenak, elkarrekin harremanetan jarriz proiektu bateratuak garatzeko. Aldundiaren berrikuntzari dagokionez, **Berrikuntza Irekia eta Erosketa Publiko Berritzailea (EPB) prozesuak** abian jartzeko aurrerapausoak emango dira, barneko nahiz kanpoko prozesuak eta emandako zerbitzuak eguneratzeko funtsezko tresna gisa. **Govtech Araba proiektua** abiaraziko da. Proiektu horren bidez, Arabako Foru Aldundiak erakunde hornitzaile ez-tradizionalen (startupak, scaleupak eta ETE digitalak) soluzio berriak identifikatu, gidatu eta eskalatzea bilatuko du, arlo teknologikoko eragile berritzaileenekin berrikuntza irekian oinarritutako lankidetza publiko-pribatuko espazio berriak garatzen lagunduz.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	

H1.1 Enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzea ekonomia erresilientea eraikitzeko

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.1.3 Karbonogabetzearen, nazioartekotzearen eta kudeaketa aurreratuaren aldeko apustua, Arabako produkzio-sektoreak hobetzeko palanka lehiakor gisa	Arabako enpresekiko gertutasunean oinarritutako lan-eredua garatzea, lehiakorragoak izaten lagunduko duten kudeaketa aurreratuko ereduak martxan jartzen jarrai dezaten, arreta deskarbonizazioan eta prozesu berdeagoak martxan jartzean jarrita, “Araba marka” nazioartekotzeaz eta esportatzeaz gain. Deskarbonizazioari dagokionez, **Deskarbonizazio Industrialaren aldeko Arabako Aliantza** aktibatuko da, enpresek, erakundeek, ZTBESeko agenteek, akademiak, hirugarren sektoreko erakundeek eta abarrek osatua. Horretarako, ibilbide-orria diseinatu behar da, lurraldeko enpresen trantsizio energetiko jasangarri eta lehiakorrerantz aurrera egiten lagunduko duena. Horrez gain, aurrera jarraituko dugu Lurraldean energia berriztagarriak sortzeko ereduetan eta etorkizuneko **Hidrogenoaren Euskal Korridorea** bezalako ekimen estrategikoak laguntzen. Osagarri gisa, lehentasuna emango zaie deskarbonizazioan eragiteko aukera emango duten azpiegitura logistiko multimodalak garatzeko inbertsioei. **Nazioartekotzearen** arloan, gure enpresei laguntzen jarraitu behar dugu, Arabak lurralde esportatzailea izaten jarrai dezan, mundu osoan ezaguna eta aintzatetsia. Horretarako, enpresei laguntzen jarraituko da, laguntzen bidez (Interkoop), misio komertzialetan lagunduz, aholkularitzaren bidez, etab. Azkenik, zerbitzuak, laguntzak eta baliabideak indartzeko lan egingo da, **kudeaketa aurreratuaren** bidez Arabako enpresen lehiakortasuna bere osotasunean hobetuko duten proiektuak bultzatzeko (Innobideak-Kudeabide, enpresentzako laguntza eta zerbitzuen antena, prestakuntza, networkinga, etab.) gure enpresen bereizgarri diren alderdiak kontuan hartuz, hala nola, berdintasuna, etengabeko hobekuntza, **euskara edo langileen parte-hartzea.**	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	

H1.2 Araba inbertsioetarako eta doing business-erako aukera-lurralde gisa kokatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.2.1 Eskualde bakoitzaren espezializaziorako eta lehiakortasun ekonomikorako ahalmena indartzea	Foru Aldundiaren asmoa da Araba askotariko Lurralde gisa hartzea eta tratatzea, non elkarrekin bizi diren hiri- eta landa-eremuak, errealitate desberdinak ikuspuntu sozial eta ekonomikotik, baina garapen ekonomikorako gaitasun eta ahalmen berdinarekin. Beraz, Lurraldeko eremu ezberdinen arteko oreka ezarri behar da, zerbitzu, azpiegitura eta abarren presentzia parekidea bermatuz. Horretarako, **eskualde bakoitzaren gaitasunen eta potentzialaren azterketa** egingo da, Arabako lurraldeko eremu bakoitzaren gaitasunak ustiatuko dituzten lurralde-politikak definitzeko, eta, ondoren, jarduera eta lan-ildo zehatzak planifikatzeko. Horren guztiaren helburua da garapen ekonomikoko zerbitzu eta politiken eragina lurralde osora zabaltzea, kuadrillen eta Aldundiaren arteko sareko lan-eredu bat sortuz. Era berean, eskualdeko eragileekin lan egiteko bide berriak aktibatuko dira, ekintzailetza eta berrikuntzako eragileekin elkarlanean, Arabako eskualde bakoitzaren beharrei erantzunez. Epe laburrean garrantzi berezia izango du **Aiaraldea Eskualdeko Plan Estrategikoa** osorik ezartzeak, ibilbide-orri horretan definitutako jarduerak abian jartzeko, eskualdeari bultzada industriala emateko..	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	
J1.2.2 Gasteizko nodo logistikoa sustatzea korridore atlantikoan funtsezko lotura gisa	Araba, Atlantikoko korridorearen ardatz egituratzaile gisa, logistikarekin eta Iberiar Penintsularen erdialdearen eta Europaren arteko konexioekin lotutako enpresa- eta ekonomia-proiektuak garatzeko funtsezko lurralde gisa duen posizionamendua indartzea. Horretarako, egungo azpiegitura logistikoen sarea indartzeko ekintzak aktibatuko dira, eta, aldi berean, Gasteizko nodo logistikoa sustatuko da. Horrela, Arabako espazio logistiko nagusien artean (Arasur, Júndiz, CTV eta Gasteizko aireportua) **bateratutako lan eredua** sustatuko da. Aldi berean, **Araba beste lurralde batzuekin lotzeko eta intermodalitatean aurrera egingo duten proiektu berrien erakarpena, bultzada eta babesa** indartuko dira.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	

H1.2 Araba inbertsioetarako eta doing business-erako aukera-lurralde gisa kokatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.2.3 Gasteizko aireportua lurralderako sarrera eta garapen ekonomiko eta industrialerako gune gisa sendotzea	**Gasteizko aireportua bidaiarien garraiorako azpiegitura estrategiko gisa balioan** jartzearen aldeko apustua egiten jarraitzea. Horretarako, hainbat bide erabiliko dira: • **Bidaiarien garraio jarduera** indartzea (ibilbide berriak, maiztasun handiagoak, etab.) • **AENArekin lankidetza** indartzea **aireportua hobetzeko inbertsioak** egiteko • **Bidaiarientzako zerbitzu berriak** abian jartzea • **Terminal berri** baten garapena Hori guztia Vitoria-Gasteizko aireportuak salgaiak kargatzeko eta garraiatzeko aireportu gisa egiten duen jardueraren osagarri gisa, eta Lurraldeko industria-jarduerarako gune estrategiko gisa duen potentziala ustiatuz. Horretarako, aurrerapausoak ematen jarraituko dugu, **VIAP** Aireportuko Industria Parkea errealitate izan dadin.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	9
J1.2.4 Doing business-erako eta Lurraldera inbertsioak erakartzeko esparru erakargarria ezartzea	Araba sustatzea enpresa eta ekonomia proiektuak garatzeko lurralde gisa, bai nazioartean, bai Euskadin eta Estatuan, **Invest in Araba** ekimenaren bidez zabaldutako sustapen-ekintzen bidez edo sareetan, foroetan, azoketan eta abarretan parte hartuz. Sustapen ekonomikoarekin lotuta daude, baina **enpresentzako esparru erakargarria ere ezartzen dute**, **fiskalitatearen** eta beste elementu batzuen bidez. Horretarako, zerga-araudia garatzen jarraituko da, deskarbonizazioa, berrikuntza edo kalitatezko enplegua sortzea bezalako elementuetan inbertsioa erraztu eta sustatzeko, eta enpresei eta proiektuei Araban ezartzea errazteko.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	9 16
J1.2.5 Proiektu berrietarako lurzoru industrialaren eskuragarritasuna eta espazioen kudeaketa jasangarria bermatzea	Arabako lurraldeetan enpresa-proiektuak garatzeko espazioak egongo direla bermatzea. Horretarako, proaktiboki lan egingo da espazioa behar duten enpresekin, haien beharren arabera (jarduera, tamaina, kokapena, finantzaketa, lekualdaketak edo handitzeak, hirigintza-zailtasunak, etab.), formula malguak emanez promozio berriak garatzeko, lurzorua saldu edo lagatzeko, alokatu edo saldu beharreko espazioak sortzeko, giltza eskura proiektuak egiteko, eta abar. Ildo horretan, **jarduera ekonomikoetarako azpiegituren defizita duten eskualdeetan —Aiaraldean, esaterako— industria gune berrien garapena** sustatuko dute. Arreta berezia jarriko da **erabiltzen ez diren industriaguneak berreskuratzeko**, bai eta **dauden industrialdeak hobetzeko eta egokitzeko** ere. Nabarmentzekoa da, halaber, erakundeen arteko lankidetzaren beste ekimen batzuen bultzada, hala nola **Arabako Parke Teknologikoa handitzea** edo **Iparraldeko Barruti Industrialdea (DIN, gaztelaniaz)** proiektua, Arriaga, Gamarra eta Betoño-Larragana industria eremuen hiri eraldatzeko eta suspertzeko.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	9

H1.3 Garapen jasangarrirako etorkizuneko sektore eta teknologia estrategikoak sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.3.1 Sektore estrategikoei laguntzea, berrikuntzarako eta azterketa teknologikorako eremu eta interesguneak garatuz	Lurraldeko enpresa-ehunaren espezializazioa indartzeko konpromisoarekin, **Arabako sektore estrategikoetan berrikuntzarako polo eta espazioen garapenaren aldeko apustua indartuko da,** Euskadiko RIS3 espezializazio adimenduneko estrategiarekin lerrokatuta. **Berrikuntza eta testatze guneen Arabako sarearen jarduera indartzen jarraituko da, hala nola Basquevolt proiektua, CIC Energigune, Robotekin elkartea, Basque Automotive Manufacturing Center, Mobility Lab Fundazioa, Advanced Pharma Development, etab.** Aldi berean, lankidetza publiko-pribatuko eredu hori beste sektore eta teknologia batzuetara hedatzeko aukera aztertuko da, hala nola **Araba Quantum**, teknologia kuantikoen erabilera sustatzeko edo BAIC – Euskadiko Adimen Artifizialaren Zentroa edo Euskal Zibersegurtasunaren Agentzia bezalako eragileekin lankidetzan aritzeko.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	
J1.3.2 Berrikuntza eta teknologia maila handiko sektore ekonomiko berrietara dibertsifikatzea	Araban hainbat sektore ekonomikoren presentzia dibertsifikatzeko, batez ere eduki teknologiko, berritzaile edo lurraldearekiko harremanagatik epe ertainean aukera suposatzen dutenena, **berrikuntza eta teknologia maila altua duten sektore ekonomiko berrien potentzialaren analisia** egingo da, hala nola, osasuna, ekonomia zirkularra, bideojokoen industria edo kirolaren industria. Sektore horietan, industria- eta ekonomia-mailan, Arabak ez du tradiziorik, baina lurraldearen aukerekin lerrokatuta daude, eta bide berriak ekar ditzakete enpresa-lehiakortasuna eta ekonomia- eta lurralde-garapena areagotzeko. Horregatik, Araba sektore horri lotutako lurralde gisa kokatzeko hainbat ekimen (proiektuak erakartzea, industriari lotutako espazioen garapena, etab.) abian jartzeko aukera aztertuko da.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	

H1.4 Arlo estrategikoei lotutako talentua hezi, atxiki eta erakartzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.4.1 Talentua sortzeko, atxikitzeko eta erakartzeko ingurune erakargarri baten garapena: Talentuaren 0 kilometroa	Talentua atxikitzea eta erakartzea dira oinarrizko zutabeak Arabaren hazkunde jasangarrirako. Horregatik, profesional trebeak eta beharrezkoak aitortu, motibatu eta atxikiko dituen inguru egokia ezarri nahi da. Hala, Lurraldean garapen profesionala, berrikuntza eta bizi-kalitatea eta ongizate soziala suspertuko dituzten politikak ezartzeko lan egingo da, bizitzeko eta lan egiteko leku erakargarria bilkatuz. Alde batetik, **Ekonomia Garapenz eta Jasangarritasunz Sailak**, hezkuntza-komunitatearekin batera, hainbat mailatako prestakuntza-programa berriak abiarazten lan egingo du (unibertsitateko prestakuntza, espezializazio-ikastaroak, doktoretzak, unibertsitate ondoko prestakuntza, lanbide-heziketa, etab.), Arabako enpresentzat estrategikoak diren sektore edota teknologietan espezializatutako talentua sortzera bideratutakoak, horrela jarraipena emanez beste esparru batzuetako prestakuntzei, hala nola kudeaketa digitala, zibersegurtasuna edo biozientziak. Talentua erakartzeko eta leialtzeko, Arabako talentua erakartzeko eta atxikitzeko proiektu integral baterantz doan **'Araba Talent'** programaren bilakaeran lan egingo da. Horrek elementu bideratzaileak hartuko ditu, hala nola prestakuntza espezializaziorako beka-programa berria, bizileku-irtenbideak eta arreta eta laguntza zerbitzuak izapideetan, besteak beste. Horrek, batetik, Arabara bertako talentua eta nazioartekoa erakartzeko beharrari erantzuten dio (ikertzaileak, teknikariak, hainbat sektore eta teknologiatako espezialistak, zuzendaritzako langileak, etab.), eta, bestetik, Arabako talentua leialtzeko eta erakartzeko aukerari, lehentasunezko sektore eta teknologiekin lotutako prestakuntza berrien bidez, eta talentu-eskaintzaren eta eskariaren artean, mundu akademikoaren eta enpresa-munduaren artean, egokitasun handiagoa ziurtatuz. Bestalde, **Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazio Sailak , Gazteen Enplegagarritasuna Sustatzeko Plana** martxan jarriko du. Horrela, talentu gaztea erakarri eta hari eutsi nahi zaio, enpresen lehiakortasuna areagotuz, eta, horrez gain, belaunaldi-erreleboaren beharrei erantzunez, lurraldeko garapen ekonomiko eta sozialerako aukerak aprobetxatuz. Arabako lurraldean enplegagarritasuna sustatzeko beste ekintza batzuen artean, **Arabako enpresetan master amaierako lanak egiteko Kontratazio Programa** dago. Horren bidez, gazteak Arabako ETEetan sartu ahal izango dira, haiek planteatutako erronka bati irtenbidea emateko, eta, ondoren, horietan jarraitzeko aukera izango dute. Horrez gain, **Lan Bitartekaritzako Foroak sortuko dira tituludun berrien eta enpresen artean**, Arabako sektore estrategikoetan dagoen eskaria eta aukerak ezagutarazteko. Era berean, Arabako Foru Aldundiak aktiboki parte hartzen du **Basque Talent** definitzen eta abian jartzen. Basque Talent hiru euskal lurraldeetarako apustu komuna da, eta tokiko talentua erakartzera, leialtzera eta garatzera bideratuta dago.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna Enplegua, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioa	
J1.4.2 Enpresa eskariaren eta prestakuntzaren arteko batasuna	Enpresen eskariaren eta prestakuntza-eskaintzaren arteko lotura eraginkorra funtsezkoa da egungo merkatuaren beharretara egokitutako lan-indarra eraikitzeko. Hori dela eta, Foru Aldundiak **logistika, ostalaritza eta turismoari lotutako Prestakuntza Plana** aktibatuko du, Arabako enpresen eta hezkuntza eta prestakuntza zentroen artean etengabeko elkarrizketa ezarriz, programa akademikoak lan eremuan eskatzen diren gaitasunekin lerrokatuz. Hori guztia, Arabarako estrategikoak diren sektoreetako prestakuntza-beharrak azpimarratuz. Era berean, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko prestakuntza soziosanitarioa aktibatuko da.	Enplegua, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioa	

H1.5 Araba turismo jasangarri eta irisgarriaren arloan liderra den Lurralde gisa kokatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.5.1 Lurraldearen sustapena estatu eta nazioarteko mailan	Araba turismo-helmuga gisa sustatzea funtsezko oinarria da Estatuan eta nazioartean kokatzeko. Alde horretatik, Arabako Lurralde Historikoa bi ikuspegitatik sustatzen da: Alde batetik, **estatuko eta nazioarteko ekitaldietan** aktiboki parte hartuz (goi-mailako azoketan parte hartuz, hala nola FITUR, BTravel) eta **estatuko eta nazioarteko sustapen-kanpainak** garatuz (marketin eta publizitate ekintzak komunikabideetan eta sare sozialetan); bestalde, eta desestazionalizazioari aurre egiteko, turismo-fluxu txikiagoko garaietan **kalitatezko ekitaldiak antolatzeko laguntza indartuko da**, Arabako Lurraldearen erakargarritasuna areagotzen duten tokiko jarduerak eta ekitaldiak garatuz.	Enplegua, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioa	
J1.5.2 Produktu propioa sortzea eta Lurraldeko eskaintza turistikoa zabaltzea	Produktu turistiko propioa, benetakoa eta bereizlea nahitaezko baldintza da Araban gaualdiak ugaritzeko eta Lurralde osoko bisitak sustatzeko. Hori dela eta, **Araba turismo irisgarriaren erreferentzia** bihurtzen lagunduko duten ekintzak egingo dira; bisitatzeko lekua, bizitzeko lekua, eta baita lan egiteko lekua ere. Modu honetan, eta jarduera turistikoak dibertsifikatzearen alde eginez (masifikaziotik aldenduta, natura eta gastronomiaren inguruan, besteak beste), Araba kalitatezko helmuga jasangarri eta irisgarri gisa kokatzea lortu nahi da, **bisitari segmentu berrientzako** (nomada digitalak) Lurraldearen erakargarritasuna areagotuz.	Enplegua, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioa	

H1.6 Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza eta dibertsifikazioa bultzatuz, jasangarritasuna jarduera osoaren ardatz gisa hartuta

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.6.1 Nekazaritza sektorearen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza, dibertsifikazioa, eraldaketa eta zuzeneko merkaturatzea bultzatuz, jasangarritasuna jarduera osoaren ardatz gisa hartuta	Arabako nekazaritza-sektoreak funtsezko erronka askori egin behar die aurre, hala nola nekazaritza-sistemaren erresilientzia indartzea, epe luzerako elikadura-segurtasunari laguntzea edo bere praktiken jasangarritasuna bermatzea. Zentzu horretan, ezinbestekoa da nekazaritza dibertsifikazioa sustatzea eta jarduera agroekologikoetarako trantsizioa babestea (bai ekoizpenari dagokionez, bai kontsumoari dagokionez). Hori dela eta, lanean jarraituko dugu nekazaritza-sektore lehiakorragoa baina iraunkorragoa bultzatzeko. Horretarako, **Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritza Jardueraren Lehiakortasuna Hobetzeko 2024-2030 Planak** ibilbide-orria marraztuko du sektorean efizientzia areagotuko duten eta berrikuntza sustatuko duten estrategiak ezartzeko eta nekazaritzako elikagaien merkatuan duen posizionamendua hobetzeko, Euskadiko eta Estatuko merkatuetan abangoardian egoteko aukera emanez. Batetik, laborantzak dibertsifikatzeak erresilientzia ematen dio nekazaritza-sistemari, eta besteren gertaerekiko kalteberatasuna murrizten du (gaixotasunak edo izurriteak, adibidez), labore espezifikoekiko mendekotasunari lotutako arriskuak arinduz. Helburu horrekin, **laguntza-programa berria sortzearen aldeko apustua egingo da, produktu berrien ezarpena sustatzeko**, hala nola, udako barazkiak, oskoldun fruta-arbolak, fruitu gorriak, proteina handiko trigoak, lupulua, sagardo-sagarra, olibadia edo txerri estentsiboa, besteak beste. Bestalde, praktika agroekologikoak eta produktu ekologikoak bultzatzeak ingurumen-jasangarritasuna sustatzen du, lurzoruaren osasuna hobetzen du eta klima-aldaketa arintzen laguntzen du, eta, aldi berean, produktu jasangarriagoen eskaera gero eta handiagoari erantzuten dio. Hori dela eta, Aldundiak lan egingo du nekazaritzako eta basogintzako praktikei ikuspegi agroekologikoa txertatzeko, **Arabako Lurzoruak Leheneratzeko eta Higadura Murrizteko Plana** indartuz eta izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko borroka biologikoa sustatuz, **Eskalmendiko Agroekologiako Ekintza Taldea** indartuz. Bestalde, **Arabako Nekazaritza Ekologikoa Sustatzeko Plan berria argitaratuko da, Biderbi** izenekoa, Lurraldean dagoen nekazaritza ekologikoaren azalera bikoizteko, eta neurri gehigarriak ezarriko dira ekoizpenaz gain produktuak zuzenean merkaturatzen dituztenei laguntzeko. Aldi berean, nekazaritza-sektorean zuzeneko eraldaketari eta merkaturatzeari lotutako ekoizpena sustatzea funtsezkoa da nekazarien autonomia ekonomikoa indartzeko eta balio-katea hobetzeko. Nekazaritzako lehengaiak azken produktuetan eraldaketa bultzatuz eta salmenta zuzena erraztuz, nekazarientzat errentagarritasun eta erresilientzia finantzario handiagoa sustatzen da, eta, aldi berean, bide laburragoak ezartzen dira ekoizleen eta kontsumitzaileen artean. Horretarako, balio-katearen integrazioa bultzatzearen aldeko apustua egingo da, nekazaritza-ekoizpenak ustiategian bertan eraldatuz eta produktuak zuzenean merkaturatuz, hala nola gaztak eta esnekiak eginez, sagardoa eginez edo azaleko fruituak eta barazkiak merkaturatuz, besteak beste. Halaber, **eraldaketa eta merkaturatze zuzena errazteko**, nekazaritza-ustiategietan inbertitzeko laguntza-programen hornidura hobetuko da, diruz lagun daitezkeen ekipo berriak txertatuz eta oinarriak eguneratuz.	Nekazaritza	

H1.6 Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza eta dibertsifikazioa bultzatuz, jasangarritasuna jarduera osoaren ardatz gisa hartuta

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.6.2 Trantsizio energetikorako praktikak ezartzea	Nekazaritza sektorean trantsizio energetikorako praktikak egitea ezinbestekoa da eredu jasangarriagoa eta ingurumena gehiago errespetatzen duen baterantz aurrera egiteko. Hori lortzeko, Arabako Foru Aldundiak energia iturri ez-berriztagarriekiko menpekotasuna murrizten eta ingurumenaren gaineko eragin negatiboak arintzen lagunduko duten hainbat ekimen jarriko ditu martxan. Lehenik, **sektorearen deskarbonizazioa helburu duten proiektuen** garapena sustatuko da, hala nola, animalien elikaduraren bidez **metano isurien murrizketa, ustiategietan energia berriztagarriak** ezartzeko laguntza, edo **hondakinen eraldaketa eta balorizazioa sustatzea** azpiprodukuak eta produktu berriak sortzeko eta ekonomia zirkularra sustatzeko.	Nekazaritza	
J1.6.3 *Smart Farming* tresnen ezagutza eta txertaketa sustatzea	Nekazaritza jardueraren digitalizazioa funtsezkoa da sektorea modernizatzeko, haren lehiakortasuna sustatzeko eta ekoizpenen bikaintasuna finkatzeko. Ondorioz, Arabako nekazaritza ezin da atzean geratu aurrerapen teknologikoetan, eta, horregatik, Arabako Foru Aldundiak nekazaritza-ekoizpenari lotutako teknologia berriak hartzea eta ezartzea bultzatuko du, bai eta arlo horretako prestakuntza eta sektorearen digitalizazioak duen garrantziari buruzko kontzientziazioa ere. Alde batetik, **smart farming eta robotizazioko tresnen dibulgazioan, saiakuntzan eta kontrastean** lan egingo da, eta horiek ekoizpen-maila guztietan erabiltzea eta praktikan jartzea sustatuko da. Ildo horretan, Foru Aldundiak **Smart Farming Araba Programa** abian jartzearen bidez smart farming tresnak txertatzeko lan egingo du legegintzaldi honetan. Programa horren helburua da nekazaritza-ekoizpenari aplikatutako teknologia berrien ezagutza zabaltzea eta horiek probatzea, sektorearen digitalizazioak produktibitatea hobetzeko duen garrantziari buruz kontzientziatuz. Era berean, Neiker bezalako nazioartean ospe handiko ikerketa-zentroekin lankidetzan arituko gara Arabako Lurralde Historikoko laborantza tradizionaletan teknologia eta tresna horiek nola aplikatu behar diren diseinatzeko, gure errealitate sektorialaren ekoizpen-baldintzen arabera. Langileei begira, makineria erosteko laguntza planen bitartez, **nekazaritza ekoizpenari lotutako teknologia berrien** ezarpena bultzatuko da, hala nola, autogidatua, ongarritze mapak, laboreetan belar txarren kontrolari lotutako ikusmen artifiziala edo abeltzaintza jardueraren robotizazioa.	Nekazaritza	

H1.6 Nekazaritza-sektorearen lehiakortasuna hobetzea, berrikuntza eta dibertsifikazioa bultzatuz, jasangarritasuna jarduera osoaren ardatz gisa hartuta

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.6.4 Abeltzaintzako jardueran biosegurtasuna sustatzea	Abeltzaintza-jardueran biosegurtasuneko jardunbide egokiak hartzea funtsezkoa da animalien osasuna babesteko, abeltzaintzako produktuen kalitatea eta segurtasuna bermatzeko, elikagaien hornidura-katea babesteko eta abeltzaintzako eragiketen bideragarritasun ekonomikoari eusteko. Helburu horrekin, Arabako Foru Aldundia **animaliak garraiatzeko ibilgailuak desinfektatzeko eta garbitzeko Euskal Autonomia Erkidegoko lehen zentroaren eraikuntza** sustatzeko lan egingo du, horrela biosegurtasuna bermatuz eta Lurraldea erreferente gisa kokatu dadin animalien erkidego arteko eta barruko garraioan.	Nekazaritza	
J1.6.5 Enpresa eraldatzaile berrien ezarpena sustatzea	Inbertsioak erakarri eta Arabako transformazio-enpresen hazkundea bultzatzen duen ingurune egokia sortzea funtsezkoa izan daiteke tokiko ekoizpena sustatzeko eta Lurraldearen garapen ekonomikoa sustatzeko.	Nekazaritza	

H1.7 Arabako Errioxa mahastizaintzako eta ardogintzako bikaintasuneko eskualde bihurtzearen aldeko apustua

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.7.1 Ezaugarri bereziak dituzten mahasti tradizionalak babestea	Ardoaren kulturak Lurraldearen nortasun-ikurra osatzen du. Arabako Errioxa eskualdeak eta bertako mahastizainek egindako ardoek bikaintasuna eta kalitate oso handia izan dute beti. Horren adibidea da, gaur egun, nazioartean prestigio handiena duten Errioxako upategiek beraien ardoak egiten dituztela gure Lurraldean. Haien babesa ezinbestekoa da haiek ordezkatzen duten kultura, historia eta ingurumen-aberastasuna zaintzeko eta, zentzu horretan, Aldundiak ezaugarri berezi batzuk dituzten mahasti tradizionalak identifikatu eta babesteko lan egingo du **Arabako Mahasti Azpimarragarriak** kontzeptuaren garapenaren bidez. Era berean, bertako mahasti barietateen berreskurapena eta ezaugarri bereziak dituzten **mahasti tradizionalen lursailen kontserbazioa** sustatuko da.	Nekazaritza	
J1.7.2 Arabako Errioxako ardoen bereizketa sustatzea eta haien kontsumoa sustatzea	Arabako Errioxako ardoen bereizketa funtsezkoa da ardogintzako eskualde honen nortasun berezia nabarmentzeko eta zaintzeko, eta merkatu globalean duten lekua sendotzeko. Bereizketa horrek Arabako Errioxa markari balioa gehitzeaz gain, tokiko ekoizleei mesede egiten die, enoturismoa sustatuz eta praktika jasangarriagoak bultzatuz, horrela eskualde horren garrantzia eta lehiakortasuna sendotuz. Ondorioz, eragin positiboa sortzen da ardogintzan eta Arabako Errioxako mahastizaintza eta ardogintza kulturaren nazioarteko proiekzioan. Horrenbestez, **Arabako Errioxako ardoak** Errioxako JDKaren barruan **bereiztearen** alde egingo da, ardoaren balio-katean parte hartzen duten sektore guztien kalitate-ereduak eta oreka ekonomikoa lehenetsiz. Bestalde, **Mahastizaintza eta Ardogintza Sektorearen Plan Estrategikoa** landuko da, sektorearen lehiakortasuna indartzeko hazkunde-aukerak identifikatzeko, berrikuntza bultzatzeko eta industriako eragileen arteko lankidetza sustatzeko. Merkaturatzeari dagokionez, Arabako Errioxako eta Arabako Txakolinako ardoen kontsumoa **sustatzeko sustapen-ekintzak** garatuko dira, eta arreta berezia eskainiko zaio Arabako eta Euskadiko tokiko merkatuari. Eta, era berean, **Euskal Sagardoa Jatorri Deitura duen Arabako sagardoaren** elaborazioa bultzatuko da.	Nekazaritza	
J1.7.3. 'EDA Edariak eta Ardoa Drinks & Wine Campus' mahastizaintzako eta ardogintzako bikaintasunaren indargunea martxan jartzea	**EDA Zentroa** garatuko da**, Edariak eta Ardoa Drinks & Wine Campusa,** nazioarteko proiekzioa duen diziplinarteko proiektu paregabe gisa, ardoaren eta edarien sektorea indartuko duena **prestakuntzaren, ikerketaren, berrikuntzaren eta ekintzailetzaren laguntzaren bidez**. Basque Culinary Centerrek sortutako eta Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako **mahastizaintza eta ardogintza arloko prestakuntza gunea** da. EDAren konpromisoa **ardoaren eta edarien balio-katean berrikuntza, ekintzailetza eta jasangarritasuna sustatzea da,** enpresei eta entitateei negozio, produktu eta zerbitzuen diseinuan osagai diferentziala eskainiz, tokiko eta mundu mailako ikuspegiarekin eta garapen ekonomiko eta soziala sortuz. Bi egoitza izango ditu, bata Gasteizen eta bestea Arabako Errioxan. Gasteizko egoitzak edarien unibertsoaren ikuspegia garatuko du, ardoaren mundua ardatz izango duen Laguardiako egoitzari ikuspegi osagarri eskainiz. EDAk 2026ko irailean jasoko ditu lehen ikasleak, baina jarduera 2024an hasiko da, tailerren eta beste ekimen batzuen bidez.	Arlo Estrategikoak	

H1.8 Arabako garapen jasangarrirako finantza, zerga eta araudia sendotzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J1.8.1 Zerga araudia: Arabako Lurraldearen erronka berrien berrikuspena eta eguneratzea	Lurraldeko oparotasuna eta garapen ekonomikoa finkatzeko, funtsezkoa da zerga-araudia modu proaktiboan berrikustea eta egokitzea Arabako erronka espezifikoetara. Ildo horretan, Arabako Foru Aldundiak gai horri helduko dio bere lehentasunekin bat datozen funtsezko ekintzak gauzatuz. Adibidez, **fiskalitatea berrikustea Arabako erronka handiei aurre egiteko**: zahartze demografikoa, BGAEak, etxebizitza, aberastasunaren birbanaketa errenta baxuenen tratamendu fiskala hobetuz, genero berdintasuna edo ekintzailetza. Arabako zerga-sistemaren izaera progresiboa, bidezkoa, ekitatiboa eta solidarioa finkatzeko aldaketak.. Era berean, Arabako enpresa ehunaren lehiakortasuna areagotzen laguntzeko konpromisoarekin, **laguntza fiskaleko neurriak aktibatuko dira Arabako enpresen berrikuntzarako**. Bide beretik, **zerga berdearen bultzadak** praktika jasangarriak garatzea bultzatuko du, hala nola prozesu berritzaileak abian jartzea edo kontsumitzaileen jokabidea aldatzea. Nazio Batuen 2030 Agendan ezarritako Garapen Jasangarrirako Helburuekin (GJH) bat datozen neurriak biltzen dituen fiskalitatea.	Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	
J1.8.2 Europako finantzaketa lortzea sustatzea	Proiektu handiagoen diseinua eta garapena bultzatzeko, Europako finantzaketa ziurtatzeko eta maximizatzeko ahaleginak indartuko dira. Horretarako, interes-programetan parte hartzeko aukerak identifikatzeko neurriak aktibatuko dira, Foru Aldundiaren eta Arabako Lurraldearen helburuekin eta beharrekin lerrokatuta.	Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak	

Araba Kohesionatua eta Inklusiboa

2. ardatza



araba álava
foru aldundia diputación foral

Araba Kohesionatua eta Inklusiboa Ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H2.1	Harremanetan oinarritutako zaintza-eredu berria garatzen jarraitzea	J2.1.1	Egoitzako arreta hobetzea, GIZAREA arreta-eredua zainketa-zentro guztietara zabalduz	Gizarte Politikak
H2.2	Zaintza komunitarioak eta etxez etxekoak sustatzea	J2.2.1	Etxez etxeko laguntza zerbitzuak indartzea, programa bera zabaltzea eta '*Etxean bai*' lurraldeko erreferentzia zentroa sortzea.	Gizarte Politikak
		J2.2.2	Komunitate ingurunean autonomia sustatzeko eguneko zentroen sarea handitzea eta indartzea	Gizarte Politikak
		J2.2.3	Desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-eredu independentea sustatzea	Gizarte Politikak
		J2.2.4	Nahi ez den bakardadeari aurre egin, *'Araba a punto'* ekimenaren bidez	Gizarte Politikak
		J2.2.5	Adingabeak babesteko zerbitzu-zorro integrala hedatzea eta arreta-protokoloak berrikustea	Gizarte Politikak
H2.3	Bizitegi-baliabideen sarea zabaltzea eta hobetzea	J2.3.1	Lurraldeko egoitza-baliabideetan mendekotasunerako plaza asitentzial berriak sortzea	Gizarte Politikak
		J2.3.2	Egoitza-zentroak GIZAREA arreta-eredu berriaren arabera berritzea eta egokitzea	Gizarte Politikak
		J2.3.3	Zaintza-zentroetan ikuskapen-lanak indartzea	Gizarte Politikak
		J2.3.4	Zaintzarako tokiko ekosistemak eratzeko laguntza	Gizarte Politikak
H2.4	Gizarte berrikuntza eta ebaluazioa sustatzea	J2.4.1	Gizarte zerbitzuen ikerketa eta berrikuntzarako laguntza	Gizarte Politikak
H2.5	Zaintza profesionala sustatu	J2.5.1	Zaintzaile profesionalen prestakuntza, trebakuntza eta lan-baldintzen hobekuntza	Gizarte Politikak
		J2.5.2	Zaintzen duten pertsonak zaintzea	Gizarte Politikak

Araba Kohesionatua eta Inklusiboa Ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H2.6	Epe luzerakoak, kalitate onekoak, eskuragarriak eta lorgarriak diren zainketak eskaintzea	J2.6.1	Foru araudia eta prozedurak modernizatzea, eskainitako zainketa-zerbitzuen kalitatea, irisgarritasuna eta eskuragarritasuna hobetzeko	Gizarte Politikak
		J2.6.2	INDESAren eginkizuna bultzatzea, desgaitasunen bat duten pertsonen integraziorako eta haien bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko eragile gisa	Gizarte Politikak
H2.7	Lankidetza-gobernantzako eredu baten alde egitea	J2.7.1	Arreta eta zaintza ereduaren gobernantza soziala hobetzea	Gizarte Politikak
		J2.7.2	Arreta eta zaintza ereduaren gobernantza instituzionala hobetzea	Gizarte Politikak
H2.8	Araba berdintasunezko gizartea izatea	J2.8.1	Indarkeria sexista desagerraraztea	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J2.8.2	Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna politika publikoetan lortzea, eta emakumeen parte-hartze sozialeko espazioak lurraldean sustatzea	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J2.8.3	Sexu eta genero aniztasunaren inguruan ikusarazteko, sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J2.8.4	Genero indarkeriaren aurkako baliabideak indartzea eta areagotzea	Gizarte Politikak
H2.9	Herritarrak memoria historikoaren inguruan sentsibilizatzea eta giza eskubideen kultura demokratikoan sakontzea	J2.9.1	Herritarrak memoria historikoaren inguruan sentsibilizatzea eta giza eskubideen kultura demokratikoan sakontzea	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
H2.10	Araba inklusiboago, kohesionatuago eta solidarioagoa eraikitzea	J2.10.1	Garapenerako lankidetza, maila globalean ahulenak eta diskriminatuenak diren pertsonei erantzuteko	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J2.10.2	Arraza aurreiritzi eta estereotipoen aurka sentsibilizatzeko eta kulturen arteko bizikidetza hobetzeko ekintzak garatzea	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J2.10.3	Bazterkeriaren eta desberdintasunaren aurka borrokatzeko baliabide berriak ezartzea	Gizarte Politikak
		J2.10.4	Lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzako enplegu-politikak ezartzea	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
H2.11	Arabako gazteen inklusioa, parte hartzea eta ongizatea sustatzea	J2.11.1	Foru Aldundiaren eta Arabako gazteen arteko lotura sendotzea	Kultura eta Kirola
		J2.11.2	Genero-ikuspegia gazteen eta osasun mentalaren arloan	Kultura eta Kirola

O2.1 Harremanetan oinarritutako zaintza-eredu berria garatzen jarraitzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.1.1 Egoitzako arreta hobetzea, GIZAREA arreta-eredua zainketa-zentro guztietara zabalduz	**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE)** zentro guztietan **GIZAREA Egoitza Arretarako Eredu** berritzailea ezartzen aurrera egitea. Eredu hori dagoeneko aztertu da, eta, ondoren, 5 zentrotan ezarri da. Horretarako, apurka-apurka, **arreta eredu** hori ezarriko da, **harremanetan zentratuta**, helburu nagusitzat egoitzetako zaintza eredua eraldatzea duena, arreta egoiliarrengan, senideengan eta profesionalengan jarriz, harremanak eraikiz alde guztien ongizate mailak handitzeko. Eta helburu zehatzago gisa, egoitzak zainketa-komunitate bihurtu nahi ditu, non familiek talde profesionalarekin batera zainketetan aktiboki parte hartzea eraiki eta sustatuko den, profesionalen lan-ongizatearen eta konpromisoaren mailak handitu nahi diren estresa eta lan-presioa murriztuz, eraberean, eredua ezartzeak egoiliarren bizi-kalitatea hobetzean dituen ondorioak ebaluatu nahi dira, Europar Batasunaren Liburu Berdearen eta Zainketen Estrategiaren jarraibideei jarraituz. Era berean, GIZAREAren garapena bultzatzeko, **Harremanetan Zentratutako Arretari buruzko Eskuliburua** lantzen ari da, hurbilketa teorikoa eta ereduaren diseinua garatuz, SIISekin (Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua) lankidetzan. Eskuliburuak zati orokor bat du, zerbitzu guztiei aplikatu beharrekoa, eta zati horri zerbitzu mota desberdinei zuzendutako gomendio eta galdesorta espezifikoen eranskinak gehituko zaizkio. Eranskinetako gomendioak GOFEren Kalitate Webeko Gomendio Bankua elikatzeko ere erabiliko dira.	Gizarte Politikak	

H2.2 Zaintza komunitarioak eta etxez etxekoak sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J2.2.1 Etxez etxeko laguntza zerbitzuak indartzea, programa bera zabaltzea eta *'Etxean Bai'* lurraldeko erreferentzia zentroa sortzea	Adineko gehienek beren etxean egotea nahiago dutela adierazten digutela kontuan hartuta, 2023an **'Etxean Bai' programa** pilotua jarri da abian, 2. eta 3. mailako mendekotasuna duten pertsonei, % 65etik gorako desgaitasun-maila dutenei edo adimen-osasuneko arazo larri eta luzeak dituztenei zuzendua. Gurutze Gorriarekin sinatutako lankidetza-hitzarmenean, mendekotasuna duten eta desgaitasuna edo adimen-osasuneko arazoak dituzten pertsonentzako 50 plazako arreta-zerbitzu berritzailea dugu. Pertsona hauek beren etxean eta ingurune naturalean mantentzea bilatzen duen zerbitzua, beren egoeraren aldizkako jarraipena egiten duen eta zaintzaileei laguntza ematen dien talde profesional batekin harreman estuan lagunduz, hori guztia teknologia berrien laguntzarekin. Pertsonaren jarraipen-programa telematikoki egingo da, erabilera errazeko aplikazioa eta hainbat sentsore ezarriz –dena delako pertsonaren etxean–. Horien bidez, eguneroko errutinak monitorizatu, abisuak bidali, gorabeherak ikusi, medikazio-jarraibideak eta hartualdiak ezagutu eta kontrolatu, konstanteak monitorizatu eta estimulazio kognitiboko programak egin ahal izango dira, besteak beste. Hurrengo urratsa **2027. urterako 500 pertsonentzako laguntza hedatzea izango da,** behin **erreferentziazko zentroa** martxan jarrita; bertan formakuntza, hitzaldiak, bilerak eta ikastaroak online eta presentzialak eskainiko dira, bai erabiltzaileentzat, bai senide eta zaintzaile profesionalentzat. Plan bizia izango da, garatzen diren ekintzen emaitzen arabera eta mendekotasuna duten pertsonek egiten dituzten eskaeren arabera hazi eta egokituko dena. Laguntzaile pertsonalak bilatu eta kontratatzeko laguntza zerbitzua ere eskainiko da. Aurrekoaz gain, **ELZ indartzen jarraituko da, Arabako zainketa-ereduaren funtsezko baliabide gisa**. Udalaren eskumeneko baliabidea denez, Arabako Foru Aldundiak, kudeaetarako akordioaren bidez, Lurralde Historikoko udalerri guztietako ELZri erantzuten dio, Gasteizkoari izan ezik. Helburua da arreta-orduen kopurua handitzea beren mendekotasun-mailagatik eta beren premia-egoeragatik intentsitate handiagoko arreta behar duten erabiltzaileentzat, etxean ongizate- eta duintasun-baldintzetan jarraitu ahal izan dezaten. Horrek guztiak, erakunde eta eragile egokiekin lankidetzan, **zaintza-ekosistema komunitarioa osatzen** laguntzea espero da.	Gizarte Politikak	

H2.2 Zaintza komunitarioak eta etxez etxekoak sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.2.2 Komunitate ingurunean autonomia sustatzeko eguneko zentroen sarea handitzea eta indartzea	Arreta komunitarioko zerbitzuak eta baliabideak zabaltzea, pertsonak beren etxeetatik kanpo artatzen jarraitu ahal izateko plaza berriak eskainiz eta eguneko zentroak mantendu, hobetu eta handituz. Horretarako, gutxienez, honako jarduera hauek egingo dira: • Gaixotasun mentala duten pertsonentzako Argibide eguneko zentroa handitu. • Gaixotasun mentala duten pertsonentzako Gasteiz zentro okupazionala handitu. • Autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten pertsonentzako eguneko zentro berria ireki Zabalganan. • Adimen desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentro berria sortu Laudion. • Uribarri Arratzuan " Lakondoa " adimen desgaitsuna duten pertsonentzako eguneko zentro berria sortu. • Mendekotasuna duten pertsonentzako eguneko zentro berria sortu Salburuan. • Aurrekoaz gain, okupazio zentroetako dotazioen berrikuspena, inbertsio berrien arabera. Bestalde, eta erabiltzaileen autonomia hobetzeko, Pertsona **Autonomoen Osasuna eta Autozaintza Sustatzeko Kanpainak bultzatuko dira,** beti ere oinarri izanik zainketa izan behar dela mendekotasunaren edo desgaitasunaren aurreko etapetan eman beharreko *continuum* bat.	Gizarte Politikak	
J2.2.3 Desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-eredu independentea sustatzea	Asmoa da Arabako desgaitasuna duten pertsonek komunitatean bizitzeko aukera izatea, haien inklusioa eta parte-hartze aktiboa ahalbidetuko duen autonomia pertsonala sustatuz. Horretarako, talde eragilearekin eta bizitza-mahai independentearekin lankidetza estuan jarraituko dugu. Talde horrek, adostasunez, Arabako bizimodu independentearen eredua definitu du, eta hainbat jarduera jarriko ditu abian, besteak beste: • **Bizitza Independentearen Bulegoa** abian jarri ezintasunekin lotutako hirugarren sektoreko elkarteekin batera, erabiltzaileari informazioa, aholkularitza eta laguntza eskainiko diona, behar izanez gero, laguntza, prestakuntza eta ikaskuntza trebetasunekin bizimodu autonomoaren proba bat egiteko. • **Bizitza independenterako prestazio ekonomiko** berria sortu. • **Bizitza independenterako zerbitzuen** katalogoa onartu.	Gizarte Politikak	

H2.2 Zaintza komunitarioak eta etxez etxekoak sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.2.4 Nahi ez den bakardadeari aurre egin, *'Araba a punto'* ekimenaren bidez	**'Araba a Punto' ekimenean** parte nahi duten lurraldeko udal guztietara zabaltzea, eraikuntza kolektiboko estrategia bultzatzeko, adineko pertsona askok pairatzen duten nahi gabeko bakardadeari aurre eginez. Sareak ehunduz eta pertsona, eragile eta erakundeen arteko topaguneak eraikiz bideratu behar da lan-eredua, guztion artean lankidetzarako irtenbideak eta proposamenak gauzatuz.	Gizarte Politikak	
J2.2.5 Adingabeak babesteko zerbitzu-zorro integrala hedatzea eta arreta-protokoloak berrikustea	Lurraldeko adingabeen eskura jarri haien babeserako eta zaintzarako behar diren baliabide guztiak, pertsona bakoitzaren egoeraren araberako erantzun ezin hobea emanez, haien eskubideak babesteko aukera emanez, oinarrizko beharrak asetuta izatea bermatuko dien ingurune egonkor eta segurua eskainiz. Lehenik eta behin, **familia babesteko politikak** indartuko dira ingurune seguruak sortuz, eta, bigarrenik, **familia-harrera** bultzatuko da, batez ere espezializatua, betiere egoitza-harreraren gaineko lehen aukera gisa. Bestalde, **adingabeei** (haur eta nerabeak) **arreta emateko protokolo guztiak** berrikusi eta **eguneratuko** dira, haien osotasuna bermatzeko eta, ahal den neurrian, haien eskubideen edozein urraketa saihesteko. Era berean, **jokabide-nahasmenduak dituzten adingabeak artatzeko zentro berriak** sortuko dira, haur eta nerabeen portaera-arazoekin lotutako erronka partikularrei aurre egiteko ingurune espezifikoa eta baliabide espezializatuak eskainiz. Azkenik, foru-baliabideen bidez artatutako adingabeei **helduen bizitzarako trantsizioa modu sendoan ahalbideratzeko**, kolektibo honen baliabideen sarea hobetuko da, emantzipazio aurreko eta emantzipazio prometan arreta berezia jarriz.	Gizarte Politikak	

H2.3 Bizitegi-baliabideen sarea zabaltzea eta hobetzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.3.1 Lurraldeko egoitza-baliabideetan mendekotasunerako arreta emateko plaza berriak sortzea	Bizitegi-baliabideetan plaza-eskaintza haunditzea, mendekotasuna duten adinekoentzat zuzendutakoei arreta berezia eskainiz. Horretarako, **erantzukizun publikoko 200 plaza sortuko dira adinekoentzako egoitzetan**, ekintza nagusia egoitza berria eraikitzea izanik: **Salburuan, 120 plaza izango dituen arreta zentro berria**, kudeaketa publiko-sozial ereduarekin. Egoitza honek **adimen desgaitasuna eta garapen-nahasmenduak dituzten pertsonen zahartzeari buruzko Ikerketa Zentro**a izango du bere baitan. Plaza publiko horiek osatzeko, **egoitza pribatuetan plazak hitzartuko dira**, betiere artatutako pertsonen, profesionalen eta familien ongizatea bermatuko duten kalitate-mailak betetzen badira. Hori guztia Lurralde Historiko osorako esparru-akordio berri baten bidez (landa-eremua barne). Hala, jarraituko da inplikatutako eragileekin lankidetzak sustatzen bai hitzarmen-esparruak, bai eta ezarritako zerbitzuak emateko moduluak ere berritzeko eta hobetzeko.	Gizarte Politikak	
J2.3.2 Egoitza-zentroak GIZAREA arreta-eredu berriraren arabera berritzea eta egokitzea	Egoitza-zentroak inbertsio berriekin optimizatzea, bizikidetza-unitateen tamaina murriztea edo ahalik eta neurri handienean etxe baten antza izatea, azken batean arretaren kalitatea hobetzea eta pertsona guztiek zaintza parekatua jasotzea ahalbidetuko duena, arreta ematen zaien zentroa edozein dela ere. Horrela, laburbilduz, **Amurrioko, Samaniegoko eta Txagorritxuko adineko egoitzetan erreformak** egingo dira, modulu psiko-geriatrikoetan pertsona gehiago artatzeko eta **Hazaldi zentroa eraberrituko da**. Horiek guztiak GIZAREA arreta-eredu berrira egokituko dira. Bestalde, aipatzakoak dira foru-zentro askotan egindako erreformak, partzialak zein berregituraketakoak.	Gizarte Politikak	
J2.3.3 Zaintza-zentroetan ikuskapen-lanak indartzea	Ikuskaritza indartzea, hura baita zaintza zentro guztietan araudia eta laguntzaren kalitatea betetzen direla bermatzeko funtsezko tresna; horretarako, batetik **Arabako Gizarte Zerbitzuen Ikuskaritza Plana 2022/2023** ebaluatuko da, kalitate-adierazleen neurketa barne, eta bigarrenik **2024/2027 Ikuskapen Plan berria** onartuko da**.**	Gizarte Politikak	
J2.3.4 Zaintzarako tokiko ekosistemak eratzeko laguntza	Arabako Mendialdean tokiko zaintza-ekosistema diseinatzeko eta ezartzeko laguntza. Ekosistema horren helburua da adineko pertsonak beren etxeetan mantentzea, eta, horretarako, zaintza-sareak sortzea komunitate-potentzialaren bidez. Zainketen ekosistema honek, erabiltzaileen eta udalerriaren beharretatik abiatuta, osasun zerbitzuak, gizarte zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak integratu nahi ditu.	Gizarte Politikak	

H2.4 Gizarte berrikuntza eta ebaluazioa sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.4.1 Gizarte zerbitzuen ikerketa eta berrikuntzarako laguntza	**Salburua Arreta Zentro berrian kokatuko den adimen desgaitasuna eta garapen-nahasmenduak dituzten pertsonen zahartzearen ikerketarako zentro berria.** Berrikuntza sustatzea foru arlo eta zentro guztietako profesionaletan, asistentzia hobetzeko eragile gisa. Beraz, **hainbat lan-ildo diseinatu eta abiarazi** behar dira, foru-erakundeei laguntzeko bere prozeduretan **metodologia berriak** sartzen (adibidez, programen ebaluazio eta jarraipen eredu berriak), edota **praktikak eta teknologia berriak** erabiltzen (adibidez, adimen artifiziala). Hori guztia eraginkorragoak izateko eta sailen arteko koordinazioa hobetzeko (adibidez, informazioa trukatzeko sistema integratuen bidez), balio handiagoko zerbitzua emateko eta zainketa- eta arreta-eredu berriak eta, oro har, eredu soziosanitarioak garatzeko. Ekintza honek izaera integrala izango du eta **zentroak eta haien tresnak,** esperimentaziokoak eta ikerketakoak **digitalizatzeko eta informatika bidez hobetzeko ekintzak** bilduko ditu. Helburua da ebidentzia berriak sortzea eta esperientzia berritzaileak eta tresna berrien proba pilotuak sustatzen lan egitea. Horretarako, bere langileek egindako **ikerketa zientifikoa ere bultzatuko** du. **Zaintzak hobetzeko ikerketa-proiektuak garatzea.** Adibide batzuk jartzearren**, une honetan bi ikerketa-proiektu daude martxan** (dementzia aurreratua duten pertsonengan laguntzeko eta murgiltze-errealitatearen erabilgarritasuna egoiliarren bizi-kalitatea hobetzeko) **eta oso aurreratuta daude beste hiru azterlanen diseinuak,** hala nola GOFEren egoitza-zentroetako disfagiaren prebalentziarena. Bi ikerketa amaituko dira eta, ondoren, adimen desgaitasuna eta garapen nahasmenduak dituzten pertsonen kolektiboaren beharretarako baliabide eta zerbitzuen egokitasuna aztertuko da, besteak beste hauskortasunaren prebalentziaren zehaztapena eta kolektibo horretan zahartze goiztiarrarekin lotutako faktoreen presentzia. Halaber, **foru egoitzen kudeaketan ekonomia zirkularra ezartzeko** diagnostiko eta jarduketa-proposamenekin jarraituko da, Ajurian eta Agurainen egindako esperientzien ostean.	Gizarte Politikak	

H2.5 Zaintza profesionala sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.5.1 Zaintzaile profesionalen prestakuntza, trebakuntza eta lan-baldintzen hobekuntza	**Kanpoko langileen** lan-baldintzei dagokienez, elkarrizketa sozialaren mahaian eztabaidatu ondoren, prestazioak hobetzeko lan egingo da, **lurralde-mailako negoziazio-esparru berriaren** oinarriak ezarriko dituen akordioa lortzeko. **Bertako langileei** dagokienez, nahiz eta egoera bestelakoa izan, hainbat erronka daude aurre egiteko, hala nola **plantillaren egonkortze eta finkatze prozesuak, bitartekotasun tasak ahalik eta gehien murrizteko**, eta oposizioen bidez plaza berriak lortzea hutsik dauden plaza berriekin –horrek ere lagunduko luke belaunaldi-erreleboaren gaia jorratzen–, besteak beste. Bestalde, alde sozialarekin ere lan egingo da laneko absentismoa murrizteko. Horretarako, bideetako bat prestakuntzari bultzada ematea izango da, GOFEko eta INDESAko langileei beren beharrekin bat datozen **ikaskuntza-programak** erraztuz, zaintza-eredu berrira hobeto egokitzeko eta gaitasun handiagoarekin ahalduntzeko, beren lanarekin erosoago sentitu ahal izateko. Gainera, ahaleginak egingo dira etorkizuneko langileei begira **ikastetxeekin hitzarmenak** zehazteko, ikasketa-geletan eta curriculum egokituetan **prestakuntza duala sustatzeko;** aldi berean, **etorkizuneko ezintasunak kontuan hartu beharreko profil berri gisa aztertzea** (gerora sortutako desgaitasuna buruko gaixotasun gisa, hartutako garuneko kalte gisa, gaixotasun arraroak, etab.). GOFEn absentismo-tasak murrizten saiatzeko neurriak ezari ahal izateko lantaldea sortzea alderdi sozialarekin.	Gizarte Politikak	
J2.5.2 Zaintzen duten pertsonak zaintzea	Zaintzaileak zaintzeko, **Zaintzaileentzako eta Senideentzako Baliabide Gida Plana** definitu**,** prestatu eta argitaratuko da, besteak beste honako edukiekin: aholkularitza eta prestakuntza zerbitzuak, laguntza psikologikoa, atseden zerbitzuak, malgutasuna edo aldi baterako ordezkapen-enplegua, diru-laguntza egokia edo zaintza informalean gizonezkoen parte-hartze handiagoa lortzeko bultzada. Era berean, **esku-hartze integraleko Zainduz Programa** hedatuko da, eta aukera emango zaie beren gizarte eta familia sareko laguntza-kide diren eta landa-ingurunean bizi eta arriskuan edo mendekotasun egoeran dauden pertsonen zaintzaileei zaintza ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko, zaintzen dituzten pertsonen zainketak eta bizi-kalitatea hobetzeko. Lan-ildo honetan sustatuko diren beste ekintza batzuk honako hauek dira: **erabiltzaileen familiei prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea**, atseden programa sustatzea edo **gizonak zaintza lanetan sar daitezen sustatzea.**	Gizarte Politikak	

H2.6 Epe luzerakoak, kalitate onekoak, eskuragarriak eta lorgarriak diren zainketak eskaintzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.6.1 Foru araudia eta prozedurak modernizatzea, eskainitako zainketa-zerbitzuen kalitatea, irisgarritasuna eta eskuragarritasuna hobetzeko	Herritarrei kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko, ezinbestekoa da Aldundiak eta haren menpeko erakundeek etengabeko hobekuntzan eta ikuspegi proaktiboan oinarritutako politika aplikatzea, ezagutza eta praktika berrietara berritzeko eta egokitzeko. Zentzu horretan, foru mailan zaintza eredu berrira eta indarrean dagoen lege-esparrura barne araudia egokitzeari ekingo zaio legegintzaldian. Ildo beretik, barne lan-protokoloak eta prozedurak (kontziliazio-sistema, lankidetza-hitzarmenak...) berrikusiko dira eraginkortasunik ezak detektatzeko, eta, azken batean, erabiltzaileei zerbitzuetarako sarbidea errazteko. Era berean, prezio publikoak eguneratzeko azterketa egingo da, eskainitako zerbitzuak kalitatezkoak eta irisgarriak izaten jarraitzeko. Egingo den beste ekintzetako bat izango da zaintza zentroetan kalitate asistentzialaren adierazleak progresiboki ezartzea; beti ere zahar-etxeen sektorearekin parte-hartzearen eta lankidetzaren bidez adostua (Lankidetza Gobernantzako Eredua), zentroetan kalitatezko arretaren berme gisa. Horretaz gain, Arabako adimen desgaitasuna eta garapen nahasmendua duten pertsonentzako zentroetan ere kalitate adierazleak ezarriko dira, bai egoitzetan, bai laguntza duten etxebizitzetan eta eguneko zentroetan. Helburu orokorra gobernantza eta elkarreragingarritasuna hobetzea izanik, bai administratiboa bai laguntzakoa, zerbitzu hobea emateko eragileen arteko koordinazioaren eta arreta partekatuaren kultura sortu behar da	Gizarte Politikak	
J2.6.2 INDESAren eginkizuna bultzatzea, desgaitasunen bat duten pertsonen integraziorako eta haien bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko eragile gisa	INDESA erakunde publikoa eta irabazi-asmorik gabekoa da, eta hala jarraitu behar du izaten, enpresa-eraginkortasunaren eta gizarte-bokazioaren printzipioei jarraituz Arabako desgaitasunen bat duten pertsonentzat enplegu-aukera egonkorrak eta kalitatezkoak sortuko dituena. Etorkizun hurbileneko erronkei aurre egiteko, hausnarketa estrategikoari ekin behar zaio, eta horren emaitza izango da **2024-2027 aldirako Plan Estrategikoa** argitaratzea. Estrategia horretan enpresaren etorkizuna diseinatu behar da, landu litezkeen negozio-nitxo berriak eta bezero berriak identifikatuz; horretarako, ezinbestekoa izango da oraingo langileen gaitasunak eta ezagutzak ebaluatzea eta etorkizunekoak planifikatzea. Aurrekoarekin lotuta, plan horretan jorratu beharreko alderdi garrantzitsuenetakoa belaunaldi aldaketarekin lotzen dena izango da, langile berriak eta etorkizuneko langileak erakartzera eta egungo langileak gaztetzera bideratua. Era berean, zentroetan eta baliabide materialetan datozen 4 urteetarako inbertsio plana zehaztu beharko da.	Gizarte Politikak	

H2.7 Lankidetza-gobernantzako eredu baten alde egitea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.7.1 Arreta eta zaintza ereduaren gobernantza soziala hobetzea	Partekatutako **hausnarketa, analisi eta ebaluaziorako gune berriak** irekitzea ondoko eragileentzat: Hirugarren Sektoreko erakunde eta gizarte-zerbitzuak ematen dituzten entitateak; gizarte-politiketan eta zerbitzuetan ardaztutako unibertsitate-ikertaldeak; sektore soziosanitarioari lotutako elkarte, sindikatu eta enpresaburuen erakundeak; Arabako Lurralde Historikoko udalak eta Arabako Foru Aldundiko ordezkariak (Gizarte Politiketako Saila eta erlazionatutakoak). Horretarako, **Gizarte Zerbitzuen Lurralde Kontseiluaren** gizarte-gobernantzako egitura sustatuko da, baita kontingentziaren arabera antolatutako lantaldeak dinamizatzeko ere (Mendekotasuna; Desgaitasuna; Babes eza; Bazterketa), eta haiekin batera **Arabako Gizarte Politiken Etorkizunari buruz Think Tank** delakoa egiteko. Horretaz gain, elkarlaneko gobernantzaren aldeko apustuan, Arabako Foru Aldundiak **Araba 2030 Zaintza Agenda adostuko du** Hirugarren Gizarte Sektorearekin eta gaiarekin lotutako beste eragile, enpresa eta erakunde batzuekin.	Gizarte Politikak	
J2.7.2 Arreta eta zaintza ereduaren gobernantza instituzionala hobetzea	EAEn eta Araban, lurralde artean zein lurralde barruan, erakundeen arteko gobernantza bultzatzea, dagoeneko dauden foroak eta kontseiluak indartuz eta berriak sortuz, eremu eta maila desberdinetako eragile publikoek arreta eta zaintza eredu berria sustatzen lagun dezaten, gizarte-zerbitzuen sistemarekin lotutako esparruetan baliabideak partekatuz eta berrikuntza, lankidetza eta koordinazioa sustatuz: alor soziosanitarioan, sozioedukatiboan, soziolaboralean eta soziookupazionalean. Horrela, genero-indarkeriari, etxegabetasunari edo profil mistoko adingabeentzako baliabideak sortzeari aurre egiteko koordinazio instituzionaleko neurriak diseinatu eta hedatzeko lankidetzan arituko da, besteak beste.	Gizarte Politikak	

H2.8 Araba berdintasunezko gizartea izatea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.8.1 Indarkeria sexista desagerraraztea	Indarkeria sexista emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazgarririk muturrekoena da, eta desagerraraztea oinarrizko urratsa da pertsona guztientzat gizarte justuago, inklusiboago eta berdinago bat eraikitzeko. Ondorioz, hori izan behar da Arabako gizartearen lehentasunetako bat, eta horregatik ezinbestekoa da berdintasun eraginkor eta errealaren bidean aurrera egiteko politika publikoak mantentzea. Horretarako, **Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2022-2026ko V. Plana** ganoraz landuko da, hainbat esku-hartze esparrutan eta, horien bidez, AFAk bere gain hartuko du indarkeria horretatik bizirik atera diren biktimak erreparatzeko ardura (emakumeak aniztasun osoan aintzat hartuta). Plan horrek **kausa horretara bideratutako ekintza-ardatz esklusibo bat aurreikusten du**, eta hiru programaren inguruan egituratuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak eta emakumeen aurkako indarkeria sexistarik gabeko bizimoduarekin bat etorriz: • **Ikerketa, sentsibilizazioa eta prestakuntza:** genero-indarkeria giza eskubideen urraketa dela dioen gizarte-kontzientzia sortzea; herritarrei mezu horiek helarazteko aukera ematen dieten azterketak eta diagnostikoak sortzea. • **Bizirik dauden biktimekin detekzio, arreta, erreparazio eta ahalduntze lanak egitea:** haiek babesteko jarduten duten profesionalen eta herritarren sarea eraikitzea; tresna eta prozedura egokiak garatzea; baita erakundeen laguntzeko sistema sendoa, biktimei erreparazioa eta ahalduntzea emateko gai izango dena. • Eta, azkenik, **koordinazio instituzionala**, lurralde eta autonomia mailako erakundeen artekoa, eta lan-sistemak hobetzeko eta baliabideak eraginkortasunez kudeatzeko behar bezalako arreta emateko tresna nagusia. Arlo honetan, Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza Sailaren jarduketez gain, Gizarte Politiketako Sailak era garatuko ditu ekintzak, ondoko erakundeen bidez: GOFE, Hegoak foru-zerbitzua, adin nagusiko emakumeei edo adingabe emantzipatuei zuzendutako 24 orduko Krisi Zentro berria, Genero Indarkerian Espezializatutako Foru Zerbitzuen Sarea edota Egoitza Baliabideen Foru Sarea. Azpimarratu behar da hurrengo urteetan zehar **Berdintasunerako Baliabideen Mapa Interaktiboa sortzea sustatuko dela**, Lurraldeko arreta eta aholkularitza baliabide guztiak zentralizatuko eta bilduko dituena, hala nola informazioa, azpiegiturak, zerbitzuak, laguntzak, etab. Azkenik, eta haurtzaroan eta nerabezaroan sexu-indarkeria prebenitu eta aurre egiteko helburuarekin, ekintza desberdinak bilduko dituen **estrategia diseinatuko da haurren sexu abusuei aurre egiteko, eta adingabeak zaintzera zuzendutako Barnahaus espazioa** gaituko da, Eusko Jaurlaritzarekin batera.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza Gizarte Politikak	

H2.8 Araba berdintasunezko gizartea izatea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.8.2. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna politika publikoetan lortzea, eta emakumeen parte-hartze sozialeko espazioak lurraldean sustatzea	Gizarte bidezkoagoa, inklusiboagoa eta ekitatiboagoa eraikitzeko funtsezkoa da berdintasuna sustatzea Arabako gizartean emakumeen parte-hartzearen bidez. Ondorioz, politika publikoen bitartez **emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea arlo guztietan eraginkortasunez** sustatzen jarraitzeko lan egingo da. Era berean, Foru Aldundiak konpromisoa hartu du politika publikoen bidez benetako berdintasunerako urrats sendoak ematen jarraitzeko eta, Legealdi honetan, **AFAko politiketan genero ikuspegia txertatzeko lanean jarraituko du,** sailen eta zerbitzuen arteko koherentzia, lankidetza eta koordinazioaren bidez. Aurrekoaren ildotik, ikuspuntu hori administrazioko maila guztietan barneratze aldera, konpromiso politikoa areagotu egingo da eskualde eta udal mailan ere berdintasun politikekiko, diru-laguntzen eta hitzarmenen bidez.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	
J2.8.3 Sexu eta genero aniztasunaren inguruan ikusarazteko, sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak	Sexu orientazioen eta genero identitateen aniztasuna aitortzea eta errespetatzea ezinbestekoa da pertsona guztiak diskriminaziorik eta estigmarik gabe bizi ahal izateko inguruneak sortzeko. Zoritxarrez, badaude zenbait erresistentzia indibidual, kolektibo eta sozialak genero estereotipoak eta emakumeen eta gizonen arteko harremanak eraldatzeko. Horregatik eta beste arrazoi batzuengatik, ezinbestekoa da herritar guztiak sexu eta genero aniztasunaren inguruan **sentsibilizatzeko jarduera eta programa gehiago egiten jarraitzea.**	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	
J2.8.4 Genero indarkeriaren aurkako baliabideak indartzea eta areagotzea	Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako **Egonaldi Ertaineko Egoitzako Arretarako Zentro (CARME)** berria irekiko da, 3 familia-unitaterentzako tokia izango duena. Horretarako, GOFEren babespean, **egonaldi ertaineko egoitza-baliabidea** irekiko da, genero-indarkeriaren biktima diren eta esku-hartze espezializatu integrala behar duten emakumeak eta haien seme-alaba adingabeak babesteko eta ostatu emateko, haien guraso-ahalaren edo zaintza eta babespean. Horretaz gain**, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei ostatu emateko beste baliabide osagarri** batzuk ere izango dira. Baita ere, **24 orduko Krisi Zentro berria** inauguratuko da, sexu indarkeria jasaten duten emakumeak artatzea ardatz izango duena. Zerbitzu publiko eta doakoa izango da, berehalako arreta espezializatua eskainiko duena 24 orduz, urteko egun guztietan, eta sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeei zuzenduta. Bertan, **laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala** ere eskainiko da, eta Hegoak zerbitzuak gainerako indarkeria matxistari ematen dion arretarekin jarraituz. Genero indarkeriaren aurkako eremu espezifikoa sortuko da GOFEn.	Gizarte Politikak	

H2.9 Herritarrak memoria historikoaren inguruan sentsibilizatzea eta giza eskubideen kultura demokratikoan sakontzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.9.1 Herritarrak memoria historikoaren inguruan sentsibilizatzea eta giza eskubideen kultura demokratikoan sakontzea	Pertsona guztien giza eskubideen defentsak, salbuespenik gabe, gizarte demokratiko ororen zutabe izan behar du, eta edozein ekintza politikoren oinarrizko printzipioa izan behar du, ekintza instituzionalaren zeharkako ardatz gisa. Hori lortzeko, Foru Aldundiaren lana **bere politika publiko guztietan Giza Eskubideen ikuspegia sustatzean oinarritu behar da**. Era berean, aurreko legealdian hasitako giza eskubideei buruzko **prestakuntza eta hezkuntza programek aurrera jarraituko** dute, eta Lurraldeko **giza eskubideen kultura demokratikoa ulertzeko eta sakontzeko ekintzak sustatuko dira.** Giza Eskubideen inguruan egingo den lanaz gain, **memoria historikoa berreskuratzeko eta indarkeria bidegabearen biktimak aitortzeko politika aktiboa garatuko du Foru Aldundiak**. Horretarako, haren berreskurapena, hedapena eta transmisioa sustatuko dira, **biktimek** egia, justicia eta erreparaziorako dituzten **eskubideak bermatzen** saiatuz, edota Martxoaren 3ko Memorialaren proiektuaren burutze lanak bultzatuz.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	

H2.10 Araba inklusiboago, kohesionatuago eta solidarioagoa eraikitzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.10.1 Garapenerako lankidetza, maila globalean ahulenak eta diskriminatuenak diren pertsonei erantzuteko	Garapenerako lankidetzaren esparruan, Foru Aldundiak nazioarteko erronka berriei erantzuten jarraituko du, horien zergatiak azpimarratuz, eta jatorrian planteatutako erronkei aurre egitea ahalbidetuko duten beharrezko erabakiak hartuz, bakea inklusiotik eta justiziatik eraikitzen jarraitzeko. Horretarako, muturreko egoera horiei erantzuteko aukera ematen diguten politikak eta tresnak garatuko dira, garapenerako lankidetza-sareetako eragileekin elkarlanean. Alde batetik, **Arabako Larrialdi Funtsa (FAE) sustatzen jarraituko da,** larrialdi-egoeretan esku hartzen duten Arabako entitateei zuzendua, hala nola hondamendi naturaletan, gatazka armatuetan edo larrialdi konplexuetan. Era berean, Arabako lankidetzako **Giza Eskubideen defendatzaileen babesari buruzko ekimenak sustatuko dira,** defendatzaileen beharretara eta egoeretara neurri malgu, moldagarri eta egokiak ahalbidetuz. Bestalde, **irabazi-asmorik gabeko erakundeei zuzendutako laguntza-deialdiak** bultzatzen jarraituko da **gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektuak** gauzatzeko, bai eta diru-sarrera txikiak eta ertainak dituzten herrialdeetan **garapenerako lankidetza-proiektuak finantzatzeko** ere, puntualak zein urte anitzekoak, lan jarraitura eta eragin handiagora bideratuta. Ildo horretan, **pertsona ahulenei arreta egonkorra eta etengabea emateko aukera emango duten erakundeekin hitzarmenak egingo dira**, hala nola haurrak, errefuxiatuak, emakume eta neskatoak, genero-indarkeriaren aurkako borroka eta bestelakoak zaintzeko. Azkenik, ahalegina egingo da **Arabako Foru Aldundiaren politika publiko guztietan elkartasunaren eta lankidetzaren ikuspegia txertatzeko** eta, horrela, oinarrizko balore horiek administrazioaren ekintza guztietan islatu daitezen, garapen bidezkoago baterako oinarriak ezarriz, jasangarriagoa eta behar kolektiboetara bideratua.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	
J2.10.2 Arraza-aurreiritzi eta estereotipoen aurka sentsibilizatzeko eta kulturen arteko bizikidetza hobetzeko ekintzak garatzea	Demografiari dagokionez, Arabak etengabe egin du gora azken 20 urteotan, 2020an 330.000 biztanle baino gehiago izanik, neurri batean atzerritarren hazkundeari esker. Gaur egun, Araban pertsonen %15 inguru atzerritarrak dira, eta datozen urteetan kopurua handitzea espero da. Egoera horrek bizikidetzaren eta gizarte-kohesioaren oinarrizko gaietan eragiten duten gizarte-erronkak dakartza berekin, eta, beraz, legealdi honetan kontuan hartu beharreko gaiak izango dira aniztasuna, kulturen arteko bizikidetza eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren defentsaren kudeaketa. Kulturarteko bizikidetza hobetzeko, eta ingurune baketsu eta seguru batean Arabako gizarteak jarrera toleranteak ezaugarri dituen komunitatea izaten jarraitzeko helburuarekin, kulturarteko bizikidetzaren aldeko neurriak sustatuko dira. Alde batetik, **Lurraldean aliantzak ezarri eta indartzeko** eta modu kohesionatuan esku hartzeko **espazioak** sortzea sustatuko da, **Zurrumurruen Aurkako Estrategiaren eragina biderkatzeko** eta bizikidetza hobetzeko helburuarekin. Era berean, **beste herrialde batzuetako taldeen kultur jarduerak lagunduko dira**, euren hizkuntza, kultura edo tradizioak ezagutarazteko, eta horrela elkar hobeto ulertzeko eta elkar gehiago errespetatzeko.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	

H2.10 Araba inklusiboago, kohesionatuago eta solidarioagoa eraikitzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.10.3 Bazterkeriaren eta desberdintasunaren aurka borrokatzeko baliabide berriak ezartzea	Bazterkeriaren eta desberdintasunaren aurka borrokatzeko baliabide berriak ezartzea ekintza hauen bidez: • **Gizarte-bazterkeria larriaren arretarako eremu berria** sortu. • **Gizarte-bazterkeria larrirako egoitza-zentro berriaren** eraketa eta **eguneko/gaueko arreta-plazak zabaltzea.** • **'Housing First' programaren bidez gizarte-bazterketa larrirako ostatu-plaza berriak sortzea**, bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen bizi-kalitatea, integrazioa eta gizarte-laguntza hobetzeko, oinarria izanik etxebizitza egonkorra ez dela gizarteratze-prozesu baten amaiera, gizarteratzeko ibilbide baten abiapuntua baizik. Beraz, kalean bizi ohi denaren duintasun pertsonalaren eta giza eskubideen errespetuaren aldeko apustua da. Programa horren bidez, etxerik gabeko pertsonari etxebizitza iraunkor bat ematen zaio, eta laguntza eta esku-hartze soziala ematen zaizkio. Horretarako, etxebizitza eta plaza berriak irekiko dira, harrera egiteko.	Gizarte Politikak	
J2.10.4 Lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzako enplegu-politikak ezartzea	Arabak gizarte inklusibo bat eraikitzeko erronkari aurre egin behar dio, Lurraldearen ezaugarri den askotariko talentua baloratu eta indartuko duena. Enplegua lortzeko oztopoak dituzten kolektiboen egoera zailari aurre egiteko, aukera-berdintasuna sustatzen duten politika aktiboak ezarriko dira, gizarte-kohesioa indartzeaz gain, hazkunde ekonomikoari laguntzeko asmoz, biztanleria osoaren potentziala erabat aprobetxatuz. Horretarako, funtsezkoa izango da prestakuntzarako, lan-orientaziorako eta laneratzen laguntzeko programa espezifikoak sortzea eta gauzatzea, eta Aldundiak **Laneratzeko Prestakuntza Programa** bat garatuko du, enplegu-erakundeekiko lankidetzak lantzeko, 45 urtetik gorako pertsonei, iraupen luzeko langabeei eta kualifikazio gutxiko edo gabeko pertsonei lan-merkatuan sartzeko aukerak erraztuz. Ildo beretik, **Gizarte Bazterketa Arriskuan dauden Pertsonentzako Prestakuntza Programa** jarriko da abian. 2024an, hirugarren sektoreko erakundeekin, hala nola Gurutze Gorriarekin eta Caritasekin, lankidetza indartu eta areagotuko da, kolektibo horiek zaintzaren arloan prestatzeko, beren prestakuntza-premien eta lan-orientazioaren arabera.	Enplegua, Merkataritza, Turismo sailak eta Foru Administrazioa	

H2.11 Arabako gazteen inklusioa, parte-hartzea eta ongizatea sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduradunak	Lotutako GJHak
J2.11.1 Foru Aldundiaren eta Arabako gazteen arteko lotura sendotzea	Erabakiak hartzeko eta Lurraldearen etorkizun inklusibo baten eraikuntzan gazteen parte-hartze aktiboa lortzeko, helburu horretarako funtsezkoak diren hainbat jarduera egingo dira. Batetik, **Arabako Gazteen Partaidetzako Lurralde Kontseilua eraldatuz bere proaktibitatea areagotzeko,** eta gazte elkarteak sustatzeko laguntzak eskainiz**.** Era berean, Info Gaztearen aldeko apustua egiten jarraituko dugu, Arabako gazteentzako informazio eta dokumentaziorako lurralde zentro gisa duen jarduera indartuz eta birpentsatuz. Eta, Bestalde, GFEren bitartez, eta 2024-2028 Ekintza Plana egitearekin batera, Arabako **gazteen denbora librea okupatzeko jarduera eskaintza proposatzen jarraituko da** (adibidez, Gazte bidaiak, ostatuak...), beti ere beste eragile batzuekin elkarlanean. Eta, azkenik, beste dimentsio batean, gainontzeko Foru Departamentuekin batera **gazteriaren ikuspegia zeharkako izaera duten politika publikoetan sartzeko** lanean jarraituko da**.**	Kultura eta Kirola	
J2.11.2 Genero-ikuspegia gazteen eta osasun mentalaren arloan lantzea	Gizarte berdinzaleagoa eta inklusiboagoa eraikitzeko konpromisoarekin, Arabako gazteen artean genero-ikuspegia eta osasun mentalaren sustapena modu integralean landuko dituzten ekintzak gauzatuko dira. Adibidez, Gazteriaren Foru Erakundeak (GFE) **“Hitz Kolpez”** proiektuarekin jarraituko du, genero-indarkeriaren eta eskola-jazarpenaren aurkako sentsibilizazio-programa, antzerki-ekintzen eta berrikuntzarako diru-laguntzen bidez gauzatua. Aldi berean, **nesken eta emakume gazteen bokazio zientifiko-teknologikoa bultzatuko da,** genero berdintasuna modu aktiboan bilatuz, tradizionalki gizonezkoak nagusi diren esparruetan. Bestalde, osasun mentalari dagokionez, Foru Aldundiak Gasteizko Udalarekin batera parte hartuko du **aholkularitza psikologiko, sexual eta juridikoko programan.** Gazteen osasun mentalari buruzko prestakuntza ikastaroak dira, haien ongizate psikologikoaren arreta integralerako tresnak eta baliabideak eskaintzeko.	Kultura eta Kirola	

Araba Berdea eta Planetarekin Konprometitua

3. ardatza

araba álava
foru aldundia diputación foral

Araba Berdea eta Planetarekin Konprometitua ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H3.1	Ingurumenaren aldetik jasangarria den Lurraldea	J3.1.1	Soru ureztatuetan uraren erabilera optimizatzea	Nekazaritza
		J3.1.2	Uraren ziklo integrala aktibatzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J3.1.3	Hondakinen kudeaketa jasangarria eta arduratsua	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
		J3.1.4	Natura- eta baso-ondarearen kontserbazioa eta balioa ematea	Nekazaritza
		J3.1.5	Ehiza sektorearen modernizazioa	Nekazaritza
H3.2	Energetikoki eraginkorra eta deskarbonizatua den Lurraldea	J3.2.1	Eraginkortasun energetikoa eta deskarbonizazioa bultzatzea Foru Aldundian	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Admin.
		J3.2.2	Lurraldean energia berriztagarriak bultzatzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna
H3.3	Araban mugikortasun iraunkorra sustatzea	J3.3.1	Lurraldea egituratzeko mugikortasun iraunkorraren etorkizuneko garapena planifikatzea	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak
		J3.3.2	*´Arabako Bizikleta Estrategia´* hedatzea eta Arabako bidegorrien sarea planifikatzea eta gauzatzea	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak
		J3.3.3	Garraio publiko bateratua, integratua eta elkarreragilea	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak
H3.4	Araban hirigintza-jarduera iraunkor eta berritzailea garatzea	J3.4.1	Udalen hirigintza-jarduketa sustatzea	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua
		J3.4.2	Ibilbide berdeen eta hirigintza-eredu berrien sorrera sustatzea	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna

H3.1 Ingurumenaren aldetik jasangarria den Lurraldea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J3.1.1 Soru ureztatuetan uraren erabilera optimizatzea	Ura baliabide urria denez, bere kudeaketa eraginkorra ezinbestekoa da erabileraren optimizazioa bermatzeko. Batetik, ingurumen mailan, uraren banaketaren eraginkortasuna maximizatzeko eta galerak minimizatzeko, eta, maila ekonomikoan berriz, nekazarien errentagarritasuna hobetzeko, uraren ponpaketarekin eta banaketarekin lotutako kostuak murrizten baitira. Hori dela eta, Arabako Foru Aldundia **Ureztatzaileen Erkidegoekin** elkarlanean arituko da **digitalizazioan**, uraren erabilera iraunkorra lortzeko lehiakortasuna hobetzeko bide gisa, eta, era berean, **ureztatzeko instalazioak mantentzearen eta ura biltegiratzearen** alde egingo du, bai eta ureztapenen erabilera eta lehorreko eremuak ureztatze bihurtzea bultzatzearen alde ere.	Nekazaritza	
J3.1.2 Uraren ziklo integrala aktibatzea	Uraren zikloaren kudeaketa integrala funtsezkoa da ur-baliabideen iraunkortasuna bermatzeko, baliabideen erabileraren eraginkortasuna bultzatzeko eta herritarrentzako hornidura fidagarria ziurtatzeko. Helburu horrekin, Arabako Foru Aldundiak **Arabako Hornikuntza eta Saneamendurako Plan Zuzentzaile berria idazteko lan egingo du,** klima-aldaketaren eraginari erreparatuta, eta tokiko entitate eta azpiegitura hidrauliko guztiak integratuko dituena. Era berean, Uraren Ziklo Integralaren Foru Ituna sinatuko da, baliabidearen erabilgarritasuna bermatzeko eta pertsona ahulenentzako neurriak izango dituen tarifa-eredu autosufiziente baterantz aurrera eginez. Era berean, Lurraldea beharrezko azpiegiturez hornitzen jarraituko da, hornidura kalitatezkoa eta kantitatezkoa izango dela eta emari ekologikoak errespetatuko direla bermatzeko. Horretarako, martxan dauden saneamendu-proiektuak abiaraziko dira, eta Arabako Lurralde Historikoa osatzen duten Eskualdeetan gauzatzeke daudenak.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	
J3.1.3 Hondakinen kudeaketa jasangarria eta arduratsua	Hondakinen kudeaketa jasangarria eta arduratsua ezinbestekoa da ingurumen, ekonomia eta gizarte erronkei aurre egiteko, hala nola ingurumena babestea, klima-aldaketa arintzea edo baliabide naturalak aurreztea. Horregatik, beharrezkoa da sortutako hondakinak murrizteko helburuak finkatzea, hazkunde ekonomikoaren eta hondakinak sortzeari lotutako giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktuen arteko lotura hausteko helburuarekin. Hori gauzatu ahal izateko, Foru Aldundiak, alde batetik, **Arabako Hondakinen Partzuergoaren sorreran jarriko du arreta**, bai eta **azpiegitura desberdinak eraikitzean eta martxan jartzean ere**, adibidez konpostajea, errefus-frakzioak, garbiguneak edo materia organikoa eta tamaina handikoak kudeatzeko espazioak bezalako proiektuak	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	

H3.1 Ingurumenaren aldetik jasangarria den Lurraldea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J3.1.4 Natura- eta baso-ondarearen kontserbazioa eta balioa ematea	Ondare naturalaren kontserbazioa eta haren balioa ematea klima-aldaketaren aurkako bermea dira, ingurumenari, gizarteari eta ekonomiari ezinbesteko onurak eskainiz. Ekosistema naturalek karbono-hustutegi gisa jokatzen dute, uraren zikloaren erregulazioan paper garrantzitsua betez, eta ezinbestekoak dira biodibertsitatea zaintzeko. Horretarako, **landa-eremuetako azpiegituren kontserbazioan lanean jarraituko da landa-bideen, baso-bideen eta beste azpiegituren Berritze eta Kontserbazio Programen bidez, eta** klima-aldaketari aurre egiteko baso-masen kontserbazioa bultzatuko da. Bestalde**, Arabako Azpiegitura Berdeen Plana** argitaratuko da, biodibertsitatea hobetzeko eta areagotzeko erreferentziazko elementu gisa, eta beste ekintza batzuk aurrera eramango dira, hala nola Natura 2000 Sareko isurketen puntu beltzen birgaitzea eta berreskuratzea, Ur Museoaren berritzea edo **Basogintzako Foru Araua** eguneratzea.	Nekazaritza	
J3.1.5 Ehiza sektorearen modernizazioa	Ehiza sektorearen modernizazioa prozesu erabakigarria da ehizarekin zerikusia duten jardueren iraunkortasuna, kontserbazioa eta garapen orekatua bermatzeko eta, horrela, biodibertsitatea kontserbatu, espezie-populazioak kontrolatu, habitat naturalak babestu eta landa-eremuetan bultzada ekonomikoa eman. Horretarako, Aldundiak **Ehiza Kudeaketa Iraunkorrerako Plana** jarriko du abian, ehiza-sektorea modernizatzeko jarraibide nagusiak jasoko dituena, landa-garapenean integratutako ehiza iraunkorreko eredua eraikitzea ahalbidetuko duena, beste beste erabilera eta ingurunearen aprobetxamenduekin orekatuta. Horrela, ehizaren gizarte-irudia hobetzen, eta haren ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-onurak sustatzen ere lagundu ahal izango da, bai eta ehiztariak prestatzen eta sektorean jardunbide egokiak sustatzen ere.	Nekazaritza	

H3.2 Energetikoki eraginkorra eta deskarbonizatua den Lurraldea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J3.2.1 Eraginkortasun energetikoa eta deskarbonizazioa bultzatzea Foru Aldundian	Ingurumenaren iraunkortasunari aktiboki laguntzeko asmo irmoarekin, Arabako Foru Aldundiaren instalazioak hobetzeko ekintzak abian jarriko dira. Alde batetik, **Parke Mugikorraren mailakako deskarbonizazio progresiboa** burutuko da, eta, bestetik, **autokontsumorako eguzki plaken instalazioa** aktibatuko da, bai eta **foru eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko proiektuak**, herritarrei arreta hobea eskaintzeko aukera ahalbidetuz.	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Adminiztrazioa	
J3.2.2 Lurraldean energia berriztagarriak bultzatzea	Aurreko legealdian Klima Araba 2050 Estrategia onartu zenetik, Arabak lurraldea eraldatzeko apustua egin du, karbono gutxiko eredu sozioekonomiko eta energetiko batera egokitzeko, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko hainbat neurriren bidez. Hala ere, deskarbonizazio-prozesua eta trantsizio energetikoa bultzatzeko, ezinbestekoa da Arabako gizarte osoa inplikatzeko lan egitea, herritarren, ETEen eta toki-erakundeen zeregin handiagoa sustatuz. Horretarako, hainbat ikuspegiren araberako ekintzak egingo dira, herritarren parte-hartzea ahalbidetzen duten tresnak eta sistemak sustatuz, baina beti ere Lurraldean energia berriztagarrien ezarpena sustatzeko helburuarekin. Alde batetik, **Lurraldean energia berriztagarrien sorrera sustatzen jarraitzeko lan egingo da**, ahalik eta adostasun sozial eta politiko handiena bilatuz, eta irizpide nagusi gisa plangintza, lurralde oreka eta sozializazioa ezarriz. Bereziki garrantzitsua izango da Lurraldean **hidrogeno berdea ekoizteko proiektuak sustatzea, energia garbia, berdea eta zirkularra sortzeko iturri gisa.** Bestalde, Arabaren **deskarbonizazioa** sustatuko da, 500 biztanletik beherako biztanle-guneetan energia-autosufizientzia osoa sustatuz. Ildo horretatik, **Ekiola herritarren energia-kooperatibak** martxan jarriko dira Lurralde osoan, baita **Ekienea eguzki parke fotovoltaikoa ere**. **Autokontsumorako tokiko energia-komunitateak sortzea sustatuko da**, toki-erakundeei aholkularitza eta laguntza eskainiz Eraldaketa Komunitarioko Bulegoen bidez (EKB). Azkenik, gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko ekintzak egingo dira, **energia-eraginkortasuneko neurri berriak garatuko dira, energia berriztagarriak ezarriko dira eta mugikortasun jasangarria bultzatuko da, eta Klima Araba 2025 Estrategian jasotako** jarduerak gauzatuko dira.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	

H3.3 Araban mugikortasun iraunkorra sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J3.3.1 Lurraldea egituratzeko mugikortasun iraunkorraren etorkizuneko garapena planifikatzea	Arabako garapen iraunkorraz, lurraldekoaz eta ekonomikoaz jabetuta eta horrekin konprometitituta, Foru Aldundiak hainbat ekintza aktibatuko ditu egungo garraio-eredua Arabako mugikortasun iraunkorrerantz behar bezala igaroko dela bermatzeko. Horrela, Lurraldearen etorkizuneko mugikortasunaren ardatz nagusi gisa, Foru Aldundiak **Arabako Lurralde Historikoko Mugikortasunaren II. Plan Zuzentzailea/Mugikortasun Jasangarriaren Plana** egiteko prozesuari ekin dio**,** indarrean dagoen Euskadiko Mugikortasun Iraunkorraren Legea betez. II Plana prestatzearekin batera, Arabako mugikortasun-sisteman jauzi kualitatiboa ekarriko duen proiektuetako bat eta A-3700 (Bilbo/Vitoria-Gasteiz) errepideko bidaiarien garraio publiko erregularraren kontratu berriaren esleipena eta emakida bateratua abian jartzea izango da. Emakida horrekk hobekuntza handiak ekarriko ditu indarrean dagoen zerbitzuaren aldean, zerbitzuari, erosotasunari, prezio eta beherapenei, BAT txartelaren erabilerari eta abarri dagokienez. Halaber, linea berria jarriko da Gasteiz zuzenean lotzeko Forondako eta Loiuko aireportuekin. Gainera, 2025-2035 aldiko emakida-mapa zehaztu ondoren, **AR01-Araba Erdialdea, AR02-Aiara, AR03-Arabako Errioxa eta eskualdeko garraio-zerbitzua berritzeko emakida** berrien aurreproiektuak eta pleguak egingo dira. Bestalde, Gasteizko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, Gasteizko garraio publikoa **elektrifikatzeko proiektu handiak finantzatzen jarraituko dira (tranbia eta EIB).**	Mugikortasun Jasangaria eta Bide Azpiegiturak	
J3.3.2 ´Arabako Bizikleta Estrategia´ **hedatzea eta Arabako bidegorrien sarea planifikatzea eta gauzatzea**	**Arabako Bizikletaren Estrategia** garatu eta gauzatu, Lurraldean bizikletaren erabilera sustatzeko bide-orri gisa. Ibilbide horrek hainbat arlo biltzen ditu, eta, horretarako, Estrategiaren Koordinazio Mahaia sortu da, foru sail guztietako ordezkariekin. Bere helburu nagusiak dira: **bizikleta sustatzea** lantokietara eta ikasketetara ibilbide laburreko **ohiko joan-etorrietarako garraiobide gisa,** baita Lurraldeko baliabide turistiko gisa garatzeko ere, hainbat arlo biltzen dituen ibilbide-orria hedatuz (garraioak, bide-segurtasuna, hirigintza, lurralde-antolamendua, ingurumena, energia, herritarren parte-hartzea, ekonomia, fiskalitatea, industria, berdintasuna, hezkuntza, osasuna, kirola, turismoa, haurtzaroa eta gazteria, etab.).	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak	
J3.3.3 Garraio publiko bateratua, integratua eta elkarreragilea	**Arabako Mugikortasun Agintaritzaren Partzuergoa** sortu, funtsezko ardatz gisa **Arabako Lurralde Historikoan tarifen arabera erabat integratutako eta bateratutako garraio publikoa lortzeko**, herritarrei eskaintza erakargarriagoa eta kalitatezkoagoa hedatzeko beharrezko tresnak garatuz. Horretarako, **tarifa- eta hobari-eredu iraunkor, partekatu eta integratua garatuko** da operadoreen artean, ohiko bidaiariei deskontu progresiboak aplikatu ahal izateko eta profil berriak garatzeko, BAT txartel pertsonalizatuan oinarrituta.	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak	

H3.4 Araban hirigintza-jarduera iraunkor eta berritzailea garatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J3.4.1 Udalen hirigintza-jarduketa sustatzea	Udalen hirigintza-jarduketa sustatzeko, sustapen-lanekin jarraituko da, **Plangintzarako Dirulaguntzen Programaren** bidez finantzatuta, hiri-antolamenduko plangintza orokorra egokitzen laguntzeko eta aholkularitza integrala eskaintzeko. Finantziazioari dagokionez, berariazko laguntza-lerroa ezarri da, hiri-antolamenduko plan orokorrak idazteko ordainsariak osorik diruz laguntzeko. Ildo horretan, ingurumen-izapidetze estrategikoko prozedurak ere diruz laguntzen dira. Aholkularitzari dagokionez, laguntza eskaintzen da gai hauetan: planen edukia, tramitazio- eta onarpen-prozedura, behar diren sektore-txostenak, araudi- edo jurisprudentzia-irizpideen aldaketak, etab. Azkenik, **hirigintza-plangintzaren erregistroaren** aplikazioa abian jartzeko proiektuarekin jarraituko da hirigintza-plangintzako dokumentuak eta horien aldaketak modu digitalean bideratzeko. Proiektu horrek zorroztasunez bermatuko du prestasun-prozesua, eta sustatuko ditu gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta administrazio elektronikoa.	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	
J3.4.2 Ibilbide berdeen eta hirigintza-eredu berrien sorrera sustatzea	Lurralde, hiri eta herri osasungarriagoak sustatzea, hiri ibilkorragoak, seguruagoak, arnasgarriagoak, ke gutxiagokoak, partehartzaileagoak, bidezkoagoak eta solidarioagoak sortzean datza, eta toki-administrazioek funtsezko zeregina dugu horretarako. Hamarkadak dira Foru Aldundia ari dela mugikortasun iraunkorraren aldeko apustua egiten. Aurreko legealdian, Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen LAPa onartu zen, lurraldea antolatzeko tresna gisa, Arabako erakundeek mugikortasun iraunkorra gure lurralde-ereduaren lehentasunezko ardatz gisa hartu behar dutela aginduz. Era berean, mugikortasun jasangarriak, garraio publikoa ibilgailu pribatuaren alternatiba gisa sustatzeak eta lurralde-oreka bermatzeko konektibitateak funtsezko zeregina izango dute konponbide berritzaileak eta anbizio handikoak ezartzerakoan Araba erresilientea, osasungarria eta bizi-kalitatea duen Lurralde bihurtzeko. Zentzu horretan, Foru Aldundiak lurralde-oreka bermatuko duen konektibitatearen alde lan egingo du, ibilbide berdeen sarean hobekuntzak eginez, adibidez: **Agurain-Sakana Nafarroa ardatz konektorea** zerbitzuan jartzea, **Vitoria-Gasteiz Valderejoko Parke Naturala ardatza**, **Asfalto Naturalen Meatze Paisaietan zeharreko ibilbideak** eraikitzea eta **Nerbioiko Parke Linealeko** lanak amaitzea. Horrez gain, Arabako lurralde-plangintzako eta -antolamenduko tresnetan klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko ikuspegia txertatzea sustatuko da, biodibertsitateari eta oreka ekologikoari laguntzeko, eta espazio publiko erakargarriagoak eta kohesionatuagoak sortzeko.	Ekonomia Garapena eta Jasangarritasuna	

Araba Orekatua, Polizentrikoa eta Anitza

4. ardatza

araba álava
foru aldundia diputación foral

Araba Orekatua, Polizentrikoa eta Anitza ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H4.1	Araban landa-eremua biziberritzea eta indartzea	J4.1.1	Arabako landa eremuan konektibitatea hobetzea	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua
		J4.1.2	Biztanleria handitzea landa-eremuan	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua
		J4.1.3	Lurralde-konektibitatea bultzatzea	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua
H4.2	Lurraldearen segurtasunerako eta egituraketarako azpiegiturak finkatzea eta hobetzea	J4.2.1	Gaitasun sozial handikoa eta ingurumen aldetik jasangarriak diren bideak martxan jartzea	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak
		J4.2.2	Bide-azpiegituren sarea hobetzea eta garatzea, seguruagoak, iraunkorragoak eta modernoagoak izan daitezen	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak
		J4.2.3	Berrikuntza teknologikoa bultzatzea eta garraio publikoa digitalizatzea	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak
H4.3	Belaunaldien arteko erreleboa eta emakume nekazarien ahalduntzea bultzatzea	J4.3.1	Gazteak eta emakumeak landa-ingurunean sar daitezen sustatzea, belaunaldien arteko erreleboa eta gizarte-kohesioa bultzatzeko	Nekazaritza
		J4.3.2	Nekazaritza-eremuan zerbitzu-kooperatiben sorrera sustatzea	Nekazaritza
H4.4	Arabako merkataritza-sektorea bultzatzea	J4.4.1	Merkataritza-sektorea dinamizatzea eta hura birmoldatzeko laguntza ematea, lurraldeko beste eragile garrantzitsu batzuekin lankidetzan arituz	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa

Araba Orekatua, Polizentrikoa eta Anitza ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H4.5	Euskara Arabako herritarren nortasun- eta kohesio-ezaugarri gisa sakontzea	J4.5.1	Gazteek euskaraz bizitzeko aukera izango duten guneak sortzea, arreta berezia eremu digitalean jarriz.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J4.5.2	Euskararen zeharkakotasuna sustatzea gizartearen esparru guztietan, kohesio globalerako tresna gisa	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
H4.6	Lurraldearen eta herritarren prebentzioa eta babesa indartzea	J4.6.1	Arabako Lurralde Historikoko Larrialdi Plana garatzea eta hedatzea, arreta berezia dibulgazio- eta sentsibilizazio-kanpainei eskainiz.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
H4.7	Kulturara iristeko, kultura-bizitzan askatasunez parte hartzeko eta Arabako ondarea babesteko eskubidea bermatzea	J4.7.1	Lurraldean Kulturara iristea eskubide gisa eta modu orekatuan bermatzea	Kultura eta Kirola
		J4.7.2	Talentua garatuz: Sorkuntza artistikoa bultzatzea	Kultura eta Kirola
		J4.7.3	Memoriarako eskubidea: kultura-ondarea kontserbatzea, zaharberritzea, mantentzea eta balioestea	Kultura eta Kirola
		J4.7.4	Lurraldearen kultura-loturak sendotzea: herritarren parte-hartzea eta Arabaren etorkizunerako lankidetza-plangintza	Kultura eta Kirola
H4.8	Arabako herritarren bizi-garapen pertsonalerako kirol inklusiboa eta iraunkorra bultzatzea	J4.8.1	Eskola-kirola sustatzea, kirol-arloa eta balioen sustapena lehenetsiz	Kultura eta Kirola
		J4.8.2	Arabako kirol-egituren hobekuntza bultzatzea	Kultura eta Kirola
		J4.8.3	Emakumeen kirola bultzatzea	Kultura eta Kirola

H4.1 Araban landa-eremua biziberritzea eta indartzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.1.1 Arabako landa eremuan konektibitatea hobetzea	Landa-eremuetako eten digitala arintzeko, eta egoiliarren eraginkortasuna eta bizi-kalitatea sustatzeko, honako ekintza hauek garatuko dira Arabako landa-eremuetan **irisgarritasun digitala eta konektagarritasuna hobetzeko**: • Telefono-operadoreekin batera, **Arabako 'Gune Zuriak' deiturikoetan estaldura mugikorra handitzea aztertzea,** Lurralde Historikoan estaldura mugikor osoa lortzen saiatuz, eta, horrela, herritarrek zerbitzu publikoak erabiltzeko teknologia digitalak erabil ditzaten lagunduz. • **5G zerbitzuen instalazioa indartzea,** partikularrentzat eta enpresentzat, ez bakarrik konexio-abiadura hobetzeko, baita etorkizunean teknologia digital berriak eskuratzeko oinarriak ezartzeko ere.	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	
J4.1.2 Biztanleria handitzea landa-eremuan	Arabako lurralde-oreka sustatzeko erronkaren aurrean, Arabako landa-eremuetan biztanle berriak erakartzeko diseinatutako ekintzak gauzatuko dira, inklusioa, oparotasuna eta tokiko nortasuna indartzea sustatuz. Ildo horretatik, **landa eremuko oinarrizko zerbitzuak eta bizi-kalitatea hobetzera zuzendutako laguntzak aktibatuko dira**. Horren barruan sartzen da **Etxebizitzak Birgaitzeko Programa indartzea**, lurraldeko ondare arkitektonikoa zaintzeaz gain, biztanle berrien iraupena eta etorrera sustatuko duten bizitegi-baldintza ezin hobeak eskainiz. Gainera, toki-erakundeen laguntzarekin, espazioak eta ekipamenduak sustatuko dira ekintzaileek bertan **oinarrizko azpiegiturak erabiltzeko**, aukera ekonomikoak sortuz eta landa-eremuko enpresa-sarea indartuz. Era berean, materialak erosteko laguntza ekonomikoa emango da, **kontzejuei auzolanak egiteko emango zaizkien laguntzen bidez**. Eremu horretan bertan, cohousing edo coliving bezalako aukerak sustatzen jarraituko da, **gune txikiagoen aukeren balioa bermatuz**. Era berean, Arabako Foru Aldundiak **Trebiñu Araban integratzearen alde lan egingo du,** pertenentzia sentimendua sustatuz ez ezik, hazkunde demografikoari lagunduz ere, biztanleria osoari bidezko garapen-aukerak emanez.	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	
J4.1.3 Lurralde-konektibitatea bultzatzea	Sakabanatze handia duten udalerriak egituratzeko urrunago bizi diren veste herritarrei udal zerbitzuak modu orekatu eta irigarriagoan esakintzeko, Aldundiak bi laguntza-deialdi egingo ditu: • **Udal barruko garraioa,** landa-eremuen barruko mugikortasun-sareak indartzeko. • **Unibertsitateaz kanpoko ikasleak landa-ingurunean garraiatzea,** ikasleek hezkuntza-erakundeekin lotura eraginkorra izango dutela eta, aldi berean, hainbat kirol-jardueratan parte hartu ahal izango dutela ziurtatuz. Horretarako, **IGEentzako laguntza-lerro berria sortuko da, kirol-jarduerak garatzeko.**	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	

H4.2 Lurraldearen segurtasunerako eta egituraketarako azpiegiturak finkatzea eta hobetzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.2.1 Gaitasun social handikoak eta ingurumen aldetik jasangarriak diren bideak martxan jartzea	**Gaitasun handiko bideak finantzatzeko eta kudeatzeko sistema berria** abian jartzeko Biltzar Nagusiek emandako aginduari erantzuteko, eta errepide horien kudeaketak dakartzan erronkak direla eta, Arabako Foru Aldundiak azterlan teknikoa egingo du, besteak beste honako hauek ahalbidetuko dituena: • Erabileragatiko ordainketaren inpaktu ekonomiko eta sozialak aztertzea. • 2026a baino lehen (AP-68aren emakida itzultzea), Arabatik igarotzen den bide-zatian aplikatu beharreko finantzaketa-eredua zehaztea. • ARABAT birdimentsionatzea, gaitasun handiko bideen kudeaketa publikoa bermatzeko. AP-68aren emakida-ereduaren trantsizioarekin batera, ARABATek (Arabako bideak kudeatzeko sozietate publikoa) beste proiektu garrantzitsu batzuk jorratu ditu legegintzaldi honetan, besteak beste: • Kontrol zentroa sortzeko proiektua. • AP-1ean kamioiak aparkatzeko gune segurua sortzeko proiektua. • Gure foru-sareko tunelak modernizatzea, tunel horietan segurtasuna ezartzeko Europako araudiak aplikatu.	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak	
J4.2.2 Bide-azpiegituren sarea hobetzea eta garatzea, seguruagoak, iraunkorragoak eta modernoagoak izan daitezen	**Arabako Errepideen 2016-2027 Plan Integrala** (AEPI) erabat hedatzea. Alde batetik, lurraldeko bide-azpiegiturak zaintzeko eta mantentzeko inbertsioa bultzatuz, Zarataren aurkako 1. Ekintza Plana ezarriz, izen bereko II. Plana zehaztuz, Zoruen Urteko Planak hedatuz, eta Prebentzio eta Neurri Aringarrien Plana eginez. Eta bestetik, haien modernizaziorako baliabideak eskaintzea, **2023-2027 Errepideak Modernizatzeko Planaren bitartez**. Plan horren bidez, epe horretan proiektu hauek amaitzea aurreikusten da: N-124 errepidea bikoiztea Armiñon eta Berantevilla artean, A-2128 errepidea hobetzea Done Bikendi Haranaren eta Kanpezuren artean, Ubideko bidegurutzea handitzea eta Legution A-623 eta A-2620 errepideak lotzeko saihesbidea egitea. Halaber, honako hauek lizitatu, esleitu eta gauzatzea: Legutioko saihesbidea, Estarronako errepidea hobetzea, Maeztutik Leorzarako errepidea hobetzea, Iurreko lotunea hobetu eta egokitzea, Eskalmendiko lotunea amaitzea eta AP1-A1 korapiloa hobetzea Armiñonen, Ministerioarekin lankidetzan.	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak	
J4.2.3 Berrikuntza teknologikoa bultzatzea eta garraio publikoa digitalizatzea	Garraio publikoaren erabiltzaileentzat hobekuntzak bultzatzen eta gauzatzen jarraitzea bai zerbitzu teknologiko bai eta arreta zerbitzuetan.	Mugikortasun Jasangarria eta Bide Azpiegiturak	

H4.3 Belaunaldien arteko erreleboa eta emakume nekazarien ahalduntzea bultzatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.3.1 Gazteak eta emakumeak landa-ingurunean sar daitezen sustatzea, belaunaldien arteko erreleboa eta gizarte-kohesioa bultzatzeko	Gaur egungo egoerak eta sektorearen zahartzeak apustu sendoa eta irmoa eskatzen dute hainbat hamarkadatan landa-eremuetako jarduera ekonomiko nagusia izan denari eusteko, eta, gizarte gisa, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak eta baserritarren eguneroko lanak oro har bizitzarako suposatzen duten funtsezko lana aitortu behar dugu. Arabako Foru Aldundiak gazteak lehen sektorean sartzeko baldintzak erraztu eta hobetzeko lan egingo du, nekazaritza-jardueraren erreleboa bermatzeko eta lurraldeko landa-eremuetan enplegua finkatzeko. Era berean, emakume nekazarien eta abeltzainen ahalduntzearen alde eta Arabako nekazaritzako profesionalen bizi-kalitate hobea erraztearen alde lan egingo da. Gazteak eta emakumeak landa-ingurunean sartzeko sustatze lanak berebiziko garrantzia du belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko, Arabako landa-eremuen iraunkortasuna eta bizitasuna bermatuz. Ikuspegi integral horrek, nekazaritza-sektoreko jarduerekin jarraitzeko beharraz gain, gizarte-kohesioa ere indartzen du, komunitatearen potentzial osoa aitortzen eta aprobetxatzen baitu, eta, horrela, sektorea profesionalizatzen eta landa-eremuetan tokiko garapena lortzen laguntzen baitu. Alde batetik, gazteak tartean sartzen direnez, bultzada berritua ematen zaio nekazaritza-jardueren eta tokiko proiektuen kudeaketari, eta, horretarako, **Lehen Sektorea Gaztetzeko Plan Integrala** egingo da, lanbide-kualifikazio egokia duten gazteei sartzen laguntzeko, belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz. Bestalde, lurraldeko nekazaritza-ustiategietan emakumeen presentzia bultzatzen jarraitzeko, **titulartasun zuzenak edo titulartasun partekatuko erakundeak erraztuko dira**, bai eta landa-eremuko emakumeek egungo gizartean betetzen duten zeregina eta eginkizunaren garrantzia ikusaraztea ere.	Nekazaritza	
J4.3.2 Nekazaritza-eremuan zerbitzu-kooperatiben sorrera sustatzea	Nekazaritza-sektorean zerbitzu-kooperatibak sortzeak landa-komunitateak sendotzen eta garatzen laguntzen du, nekazariei eta nekazaritz-ekoizleei indarrak batzeko, baliabideak partekatzeko eta erronka komunei modu eraginkorragoan aurre egiteko plataforma eskaintzen dietelako. Ildo horretatik, Foru Aldundiak **zerbitzu-kooperatiba bateratuak sortzea sustatuko du, nekazaritza eta abeltzaintza alorreko lanak egiteko,** zerbitzuak azpikontratatzea ahalbidetzen dutenak eta ustiategietako bizi-kalitate hobea sustatzen dutenak, eta ekoizpen-bideen erabilera optimizatzen dutenak.	Nekazaritza	

H4.4 Arabako merkataritza-sektorea sustatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.4.1 Merkataritza-sektorea dinamizatzea eta hura birmoldatzeko laguntza ematea, lurraldeko beste eragile garrantzitsu batzuekin lankidetzan arituz	Arabako enpresen beharrei erantzuteko ildoari jarraituz, funtsezkoa da, halaber, lurraldeko tokiko saltokiei laguntza ematea. Hala, kontsumo-ohituretan izandako aldaketa esanguratsuei erantzuteko eta digitalizazioak duen gero eta garrantzi handiagoari aurre egiteko, nahitaezkoa da merkataritza-sektoreari laguntza sendoa ematea birmoldaketa-prozesuan. Hori dela eta, ***in situ*** izango den **merkatarientzako prestakuntza digitalaren programa** ezarriko da, aro digitalaren erronkei arrakastaz aurre egiten lagunduz, bezeroen eta kontsumitzaile potentzialen eskakizun berrietara egokitzeko laguntza emanez. Era berean, merkatarien elkarteekin elkarlanean, merkataritza-sektorea dinamizatzen lagunduko da, merkataritza-ingurune erakargarriagoa eta lehiakorragoa sustatuko duten sustapen-kanpainak eta tokiko ekitaldiak garatuz. Ildo horretatik, **Leialtze-programak** bultzatuko dira, bezeroak atxikitzea baita Arabako merkataritza-sektoreak aurre egin beharreko erronka nagusietako bat, batez ere landa-eremuetan. Hain zuzen ere, Arabako lurralde osoko tokiko baliabideak aprobetxatu eta indartzeko, **landa-merkataritza bultzatzeko Plan Integrala** aktibatuko da. Plan horrek 485.000 euroko aurrekontua izango du, eta prestakuntza- eta aholkularitza-ekintzak egingo ditu honako arlo hauetan: prestakuntza, marketina eta branding, erosketen kudeaketa, logistika, merkaturatzea eta ekintzaile berriak erakartzea. Erakundeen arteko lankidetzaren garrantzia aitortuta, merkataritza-sektoreari laguntzeko ekimenak garatzen jarraituko da beste eragile batzuekin, hala nola **Arabako Merkataritza Ganberarekin Aliantza.** Administrazioen arteko sinergiak baliabide eta ezagutza espezializatuak aprobetxatzea ahalbidetuko du, merkataritza-sektorean eragin positiboa maximizatuz. Hala, Arabako saltokien eskura jarriko dira haien egungo egoera ezagutzeko eta hobetzeko ekintzak ezartzen lagunduko duten tresna interesgarriak. Esaterako, **merkataritza-jarduera sustatzeko Plana, belaunaldi-erreleborako Programa,** edo diagnostiko-tresnak eskuragarri jartzekoak, hala nola **egoera zailean dauden saltokiak hautemateko alerta goiztiarra,** edo **saltoki berriak irekitzeko bideragarritasun-planak.**	Enplegua, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioa	

H4.5 Euskara Arabako herritarren nortasun- eta kohesio-ezaugarri gisa sakontzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.5.1 Gazteek euskaraz bizitzeko aukera izateko duten guneak sortzea, arreta berezia eremu digitalean jarriz.	Lankidetza publiko-pribatua oinarri hartuta, bide guztiak aktibatuko dira pertsona guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko gune berriak egokitzeko edo sortzeko, baita euskaldunenak ere. Arreta berezia jarriko da gizarte gazteenaren segmentuan eta, batez ere, aisialdiaren eta kirolaren eremuetan. Gainera, ingurune digitalean euskara erabiltzeko aukera berriak sortzeko lan egingo da, eremu digitaleko gainerako erakunde, enpresa eta eragileekin lankidetzan, gune berriak sortzeko gazteek edukiak kontsumitzeko, komunikatzeko eta euskaraz sozializatzeko.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	
J4.5.2 Euskararen zeharkakotasuna sustatzea gizartearen esparru guztietan, kohesio globalerako tresna gisa	Ikasketa eta ezagutza sustatzeaz gain, AFAk euskaraz bizitzeko eta komunikatzeko sare eta espazio seguruak bermatzeko lan egingo du, "hizkuntza-estresa" deiturikoa saihestuz. Epe labur, ertain eta luzean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ildo eta ekintza guztiak oinarrizko dokumentu batean jasoko dira, emango diren urratsak identifikatzen eta kuantifikatzen lagunduko duena. Beraz, oinarrizkoa izango da **Euskararen Erabilera Sustatzeko 2023-2027 Plan Estrategiko** berria egituratzea, hiztun-sareen aktibazioa bultzatzen jarraituko duena eta Lurraldean euskaraz bizitzeko aukerak bermatzeko baldintzak sortzen jarraituko duena, sortuko diren testuinguru berriak kontuan hartuz. Legealdi honetan, euskararekiko sentsibilizazio-estrategiak diseinatu eta garatzeko lan egingo da, helduek euskara ikasteko pizgarriak eskainiko dira, eta beste erakunde eta entitate publiko zein pribatuekin lankidetzan arituko da horren bereziak diren esparru sozioekonomikoan, sozialean edo kulturalean euskara sustatzeko.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	

H4.6 Lurraldearen eta herritarren prebentzioa eta babesa indartzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.6.1 Arabako Lurralde Historikoko Larrialdi Plana garatzea eta hedatzea, arreta berezia dibulgazio- eta sentsibilizazio-kanpainei eskainiz.	Aldundiak lurraldearen prebentzioaren eta babesaren arloan egiten dituen ahaleginek azpiegiturak eta baliabideak babesteaz gain, herritarren segurtasuna eta bizi-kalitatea ere bermatu nahi dituzte. Horretarako, legegintzaldi honetan, **Arabako Lurralde Historikoko Larrialdi Plana hedatzen eta garatzen jarraitu nahi da**, eta arreta berezia jarri behar da arrisku edo larrialdi mota desberdinei buruzko **dibulgazio- eta sentsibilizazio-kanpainetan**. Era berean, **Foru Aldundiko Suhiltzaileen Unitateen zerbitzuaren** kalitatean urratsak ematen jarraitzearen aldeko apustua egingo da. Horretarako, hobekuntzak egingo dira ekipoetan eta instalazioetan, eta suhiltzaileen etengabeko prestakuntza eta prestakuntza espezifikoa emango da jarduera-eremu guztietan. Bestalde, Aldundiak **lurraldeko babes zibileko taldeei laguntzen jarraituko du**, larrialdietako zuzendaritzarekin eta parkeen arduradunekin **aldian-aldian topaketak sustatuz**, esperientzia onak partekatzeko, harremanak estutzeko eta praktika bateratuak gauzatzeko, bakoitza bere eskumen-eremutik. Miñoien atala osatzen duten pertsonen etengabeko prestakuntza sustatuko da, bai eta foru-zerbitzuekiko lankidetzan sakontzea ere: mendiak, abeltzaintza, ingurumena, errepideak, etab.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	

H4.7 Kulturara iristeko, kultura-bizitzan askatasunez parte hartzeko eta Arabako ondarea babesteko eskubidea bermatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.7.1 Lurraldean Kulturara iristea eskubide gisa eta modu orekatuan bermatzea	Kultura eskuratzeak herritar guztien oinarrizko eskubide gisa duen garrantzia aitortuta, Arabako Foru Aldundiak Lurraldeko eremu guztietan, hiri-eremuetan zein landa-eremuetan, kultura-eskaintza irisgarria izango den inguruneat sortzen eta garatzen jarraituko du, aniztasuna eta tokiko kultura-adierazpenen babesa sustatuz. **Kultura Planak** bultzatuko du, eta bere garapena **urteroko bide orrien** bidez zabalduko da. Horrela, eta kultura oinarrizko eskubide gisa eskuratzeko, **Herritarren Kultur Eskubideei buruzko Foru Araua** garatuko da. Arau horrek kulturarako eskubidetik eskubide kulturaletara igarotzea ekarriko du, eta horrek eskubide horiek erabiltzea erraztuko du. Ildo beretik, Lurraldeko kultura-bizitzan euskararen erabilera normalizatua bermatu eta sustatuko da, **euskararen presentzia eta erabilera bultzatuz** kultura-ekintzaren garapen osoan. Kolektiboei dagokienez, azpimarratu behar da "**Kultura-sektorean genero-berdintasuna lantzeko Ekintza Plana**" egingo dela, arlo horretako jardunbide egokien eskuliburua planteatuko duena. Gazteek kulturarako sarbidea dutela azpimarratuko da, hori funtsezkoa baita beren bizi-garapenerako, eta arreta berezia emango zaie bere edukietan, eragileetan eta publikoetan gizartearen aniztasuna integratuko eta jasoko duten programazio publikoak bermatuko dituzten politikei. Bestalde, **Lurralde osoan kulturarako sarbide orekatua bermatzeko** hainbat ekintza egingo dira, hala nola: **kultura-ekipamenduen mapa** egin, udalerri bakoitzeko urteko kultura-eskaintza egonkor eta puntuala proposatu, eta kultura-programazioa deszentralizatzen lagundu.	Kultura eta Kirola	
J4.7.2 Talentua garatuz: Sorkuntza artistikoa bultzatzea	Arte-sorkuntzaren bidez kultura-nortasuna indartu eta gizartea aberasten lagunduko delakoan, Arabako Foru Aldundiak hainbat ekintza egingo ditu, Araban sormen-prozesuak garatzen dituzten pertsonei eta erakundeei laguntzeko. Ildo horri hainbat ikuspuntutik helduko zaio, berez lotuta badaude ere: • **Kultura Araba Bulegoa** programa indartzea, kultura-sektorea eta, batez ere, hasierako fasean dauden eragileak eta proiektuak bultzatzeko neurri gisa. • **Artistaren estatutuaren garapena eta ezarpena.** • **Mezenasgoari buruzko Foru Arauaren** informazioa eta komunikazioa hobetzea • **Beken, sarien eta lehiaketen deialdiak mantentzea eta bultzatzea, bai eta dirulaguntzen programak eta sorkuntza-proiektuetarako eta, oro har, kulturarako ere**.	Kultura eta Kirola	

H4.7 Kulturara iristeko, kultura-bizitzan askatasunez parte hartzeko eta Arabako ondarea babesteko eskubidea bermatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.7.3 Memoriarako eskubidea: kultura-ondarea kontserbatzea, zaharberritzea, mantentzea eta balioestea	Kultura-ondarea iragana eta oraina lotzen dituen aktibo ukiezina da, lurraldearen kultura-nortasuna aberasten laguntzen duena. Beraz, gure zeregina Arabako kultura-ondasunen epe luzeko kontserbazioa, zaharberritze arduratsua, mantentze eraginkorra eta balioa ematea bermatzeko neurri integralak ezartzera bideratuko da, ezagutza eta esperientzia egokiak sortuz. Horrela, **Kultura Ondareari buruzko Legearen kontrola eta betetzea** bermatuz, ekintza espezifikoak gauzatzen jarraituko da, hala nola honako hauek: • **Iruña Veleiako Erromatar Hiria berreskuratzeko proiektua** • **Añanako Gatz Harana berreskuratzen eta balioztatzen jarraitzea** • **Kexaako monumentu-multzoa zaharberritzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko plana lantzea** • **Artium Arte Garaikideko Museoari laguntza mantentzea** • **Tokiko erakundeentzako eta partikularrentzako dirulaguntzen programari eustea, kultura-ondasun higigarri eta higiezinak zaharberritu eta kontserbatzeko** • **Santa Maria Katedralaren erabilera kulturala indartzea** • **Ondare-espazioetan kultura-programazioa garatzea** • **Arabako Lurralde Historikoko jarduera arkeologikoak arautuko dituen Foru Arauaren proiektua**	Kultura eta Kirola	
J4.7.4 Lurraldearen kultura-loturak sendotzea: herritarren parte-hartzea eta Arabaren etorkizunerako lankidetza-plangintza	Kultura gizarte-kohesioa indartzeko funtsezko faktorea izanik, Arabako Foru Aldundiak azpimarratu nahi du oso garrantzitsua dela gizarte zibila inplikatzea Arabako kultura-panoraman eragina duten erabakiak hartzerakoan, erabakiak hartzeko prozesua bera demokratizatzeko, irisgarritasuna eta inklusibotasuna sustatuz. Ildo horrek bilduko ditu gobernantza-eredu gardena, inklusiboa eta parte-hartzailea eratzen laguntzen duten ekintzak. Horretarako, ekintza hauek aktibatuko dira: • **Arabako Kultura Batzordea sortzea** • **Lurraldeko Kulturaren Foroaren bigarren edizioa abian jartzea** • **Parte hartzeko eta hausnartzeko guneak bultzatzea** • **Erakundearteko eta sektorearekiko lankidetza-lana hobetzea** • **Aldundiaren e-Administrazioa eta Dokumentuen Kudeaketa Integralerako Sistema ezartzea, bultzatzea eta hedatzea** • **Arabako Kulturaren Lurralde Koordinaziorako Mahai Iraunkorra indartzea** • **Kulturaren arloko barne-prestakuntzan eta sektorearekiko prestakuntzan laguntzea**	Kultura eta Kirola	

H4.8 Arabako herritarren bizi-garapen pertsonalerako kirol inklusiboa eta iraunkorra bultzatzea

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J4.8.1 Eskola-kirola sustatzea, kirol-arloa eta balioen sustapena lehenetsiz	Kirolak berebiziko garrantzia du gazteen garapen integralean, ez bakarrik ikuspegi fisikotik, baita talde-lana, diziplina, norberaren hobekuntza eta errespetua bezalako balioen prestakuntzan ere. Gainera, ohitura osasungarriak eta, txikitatik, bizimodu aktiboak hartzea sustatuz. Hori dela eta, Arabako Foru Aldundiak kirolaren arloan egingo duen lanaren zati handi bat kirol-dimentsioa gazteen hazkuntzan eta prestakuntzan funtsezko osagai gisa lehenetsiko duen hezkuntza-ingurune bat sortzera bideratuko du. Horrela, hainbat ekintza ezarriko dira, hala nola **kiroleko ikuskapenaren ebaluazioa**, "**Topaketak" prestakuntza-programaren sustapena** (Arabako Lurralde Historikoan kultura osatzen duten erakunde eta erakundeetan eskuragarri dauden baliabideak indartzeko urteko jardunaldiak), eta **jarduera irekien kanpaina berria,** horiek guzitak eskola-kiroleko hainbat diziplinatan parte-hartze aktiboa eta inklusiboa indartzeko eta areagotzeko programak izanik. Era berean, EHUrekin batera, Foru Aldundiak **Desgaitasuna eta Arabako eskola-kirolari buruzko Azterlana** egingo du**.** Gaur egun, proiektua hastapen fasean dago, eta oraingo legealdian garatuko da.	Kultura eta Kirola	
J4.8.2 Arabako kirol-egituren hobekuntza bultzatzea	Lehenik eta behin, **Arabako kirolaren egoeraren eta eraginaren diagnostikoa** egingo da, stakeholder guztiekin, lurraldearen irudia definitzeko eta politika berriak asmatu eta abian jartzeko abiapuntu izateko. Bestalde, dauden kirol-egiturei babes sendoa emango zaie, eta tokiko kirol-jarduera erraztuko duten azpiegitura berriak sortu eta indartuko dira. Ildo horretan, **nabarmentzekoa da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege berria ezartzeko Lan Plana gauzatu izana.** Gainera, **tokiko erakundeetan kirol-jarduerei laguntzea** bultzatuko da, bai eta **kirol egokituaren ekitaldi edo torneoak babestea** ere, eta **Kirolaraba fundazioa eta Denon Eskola Programa mantentzea**, Arabako ikastetxeetan kirola egituratzearen aldeko apustua eginez. Era berean, **kirol-federazioei eta horien asoziazionismoari** laguntzen jarraituko da, **goi-mailako kirol-ekitaldien kopurua handituz edota estatuko eta nazioarteko kirol-probak eginez,** eta baita **errendimendu handiko klubei laguntza** ere.	Kultura eta Kirola	
J4.8.3 Emakumeen kirola bultzatzea	Bestalde, emakumeen ahalduntzea bultzatuko da eta emakumeek gizartean duten zeregina indartuko da, alde batetik **emakumeen kirola ikusarazteko** ekimenak sustatuz eta, bestetik, kirolean emakumeen eta nesken parte-hartzea sustatuz. Horretarako, "**Neska eta Kirola"** programa gauzatuko da, eskola-kirolean parte hartzen duten erakunde guztiei zuzendua.	Kultura eta Kirola	

Araba Ondo Gobernatua

5. ardatza

araba álava
foru aldundia diputación foral

Araba Ondo Gobernatua ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H5.1	*Araba e-goverment*	J5.1.1	*Araba digitala* toki-erakundeak digitalizatzeko eta herritarrekiko harremanak errazteko	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua
		J5.1.2	Digitalizazioa herritarrekiko harremana sustatzeko eta hobetzeko	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J5.1.3	Arabako Foru Aldundiko prozesu digitalen optimizazioa, eraginkortasuna eta zibersegurtasuna sustatzea.	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
		J5.1.4	*Geoaraba* proiektua indartzea	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua
H5.2	Araban funtzionario publiko moderno eta eguneratua	J5.2.1	Plantilla egonkortzeko prozesuarekin jarraitzea eta belaunaldien arteko erreleboari erantzutea	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
		J5.2.2	Funtzio eta zereginen azterketa prestatzea	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
		J5.2.3	Laneko arriskuen prebentzioaren garapena (fisikoak eta psikosozialak)	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
		J5.2.4	Arabako Foru Aldundian euskararen erabilera normalizatzeko planaren diseinua eta ezarpena	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa
H5.3	Araban gobernu irekia	J5.3.1	Administrazioko baliabideak eta prozesuak optimizatzeko barne-berrikuntza	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua
		J5.3.2	Administrazio publikoaren gardentasuna, erantzukizuna eta osotasuna sustatzea	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza
		J5.3.3	Elkarlaneko gobernantza	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza

Araba Ondo Gobernatua ardatzaren jardueren laburpena

HE zk.	HELBURU ESTRATEGIKOA	JI zk.	JARDUERA ILDOA	SAIL ARDURADUNA
H5.4	Araban Ogasun modernizatua eta zerga-sistema justu eta solidarioa	J5.4.1	Ogasunaren kudeaketa-prozesuen eraldaketa	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak
		J5.4.2	Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren eraginkortasuna hobetzea	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak
		J5.4.3	Ondarearen kudeaketa hobetzeko eredua ezartzea	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak
		J5.4.4	Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuak 2030 Agendarekin eta GJHekin lerrokatzea	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak
		J5.4.5	Zor biziaren iraunkortasuna	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak

H5.1 Araba e-goverment

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J5.1.1 *Araba digitala* toki-erakundeak digitalizatzeko eta herritarrekiko harremanak errazteko	Arabako toki-administrazioa digitalizatu nahi duen proiektu eraldatzailea, lurraldeko biztanleekin dituzten elkarreraginak hobetzeko eta administrazioaren zein herritar administratuen izapideak erraztu eta arintzeko. Eraldaketa digitala bultzatzeko neurri integrala da, NISAEren erabilera aktiboa bultzatuz (euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzako plataforma komuna, datu elektronikoen trukea inplementatzeko nodo autonomiko gisa eratua). Bertan gai digitalari buruzko prestakuntza-proiektuak ere aktibatuko dira, hala nola "**Lurraldea digitalizatzeko eskola**" Arabako toki-erakundeentzat edo "**IKTei buruzko prestakuntza-gela irekiak**" herritarrentzat.. Zentzu honetan, integrazio teknologikoko proiektu honen sustapena 3 fasetan gauzatuko da: • Lehenengo fasean, udalen eta lurraldeko beste eragile batzuen erregistro-aplikazioak, espedienteen kudeatzailea eta egoitza elektronikoa aldatzeko lan egingo da. • Bigarren fasean, Errolda, Kontabilitate, Zerga Kudeaketa eta Nominen aplikazioak aldatuko dira. • Eta hirugarrenean eta bukatzeko, administrazio elektronikoaren azken aplikazio horiek Arabako kontzejuei eskainiko zaizkie, gaur egun ez baitute inolako tresnarik.	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	
J5.1.2 Digitalizazioa herritarrekiko harremana sustatzeko eta hobetzeko	Plataforma digitalek funtsezko zeregina betetzen dute herritarrekiko harremanean, gardentasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzen dituztelako, eta administrazio-prozesuak arintzen dituztelako, zerbitzuak eraginkorragoak izan daitezen ahalbidetuz. Informaziorako eskubidea sendotze aldera, legegintzaldi berri honen beste helburuetako bat foru-administrazioa herritar guztiei zabaltzea da, erraz ulertzeko, irisgarriak, erraz irakurtzeko eta erabiltzeko modukoak izango diren tresna digitalak artikulatuz, aurrez aurreko herritarren arretarako sistema eguneratu batekin batera, tresna digitalak optimizatu eta baliatuko dituena. Era berean, Arabako Foru Aldundiak izapide digitalak garatzen lagundu nahi du, eta, horrela, foru-titulartasuneko datuen azterketa sustatu, datu horiek behar bezala erabili ahal izateko eta haien ustiapena sendotzeko. Horretarako, **informazio-kanal berriak** garatuko dira, herritarren arreta hobetzeko eta herritarren eskaerak eta beharrak modu pertsonalizatuan, berehalakoan eta errazean asetzeko, bai eta **estrategia digitalarekin jarraitzeko asmoa ere, lehen mailako ekimenak eta proiektuak koordinatu ahal izateko**. Bestalde, **EAEko gainerako administrazioekin e-administrazioaren inguruko ekimen berritzaileak** eta bideratzaileak **sustatzeko** lan egingo da, zerbitzu publikoak eskaintzeko modua optimizatzeko eta modernizatzeko, teknologiak aprobetxatuz. Azkenik, **gardentasunari eta datu irekiei** buruzko jarduera berriak bultzatu nahi dira, ***data-driven-government* aplikazioa** abian jartzeko.	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	

H5.1 Araba e-goverment

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J5.1.3 Arabako Foru Aldundiko prozesu digitalen optimizazioa, eraginkortasuna eta zibersegurtasuna sustatzea	Eraldaketa digitala funtsezko palanka gisa ulertuta zerbitzuen kalitatea hobetzeko eta aro digitalean informazioaren babesa bermatzeko, ekimen hau Aldundiaren prozesu digitalak modernizatu eta indartzean oinarrituko da. Horretarako, eraginkortasun operatiboa eta segurtasun zibernetikoa lehenestuko dituzten ekintzak gauzatuko dira, hiru ikuspegitatik: Lehenik eta behin, **Arabako Foru Aldundiaren Estrategia Digitala landuko da**. Zibersegurtasuna lehentasuna izango da estrategia honetan, datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna babesteko neurri sendoak ezarriz. Bigarrenik, **barne-digitalizazioa bizkortzeko** neurriak aktibatuko dira, lan-fluxuen optimizazioa bultzatuko duten eta zerbitzu digitaletarako irisgarritasuna hobetuko duten teknologia berritzaileak ezarriz. Azkenik, **herritarrekiko kanpo-komunikazioko ekintzak egingo dira klabe digitalean**, herritarren arretarako zerbitzu publikoaren kalitatea optimizatuz.	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa	
J5.1.4 *Geoaraba* proiektua indartzea	Interoperabilitatea, gardentasuna eta informazioaren hedapen irekia bultzatzea *Geoarabaren* bidez (Arabako Datu Espazialen Azpiegitura), premia eta eremu ugariri erantzun eta zerbitzua eman diezaiekeen proiektu estrategiko eta horizontal gisa. Horretarako, plataformaren mantentzea, eguneratzea eta etengabeko garapena ziurtatzeko ahaleginak egiten jarraituko da. Alde horretatik, AFAren barruan erabilera sustatzeko sailen arteko batzordea sortu berri da, eta, horrez gain, plataforma sektore anitzeko informazio geografiko interesgarriarekin hobetzen jarraituko da, edo kartoteka- eta fototeka-zerbitzuak eta deskarga-eremua bateratuko dira, horrek lurraldeko edozein gunerekin lotutako mota guztietako dokumentuak kontsultatzeko aukera emango baitu. Hori guztia, Geoaraba Arabako Foru Aldundiaren zeharkako plataforma gisa sendotzeko. Proiektuan 3D osagaia sartzeko helburuarekin, ALHren biki digitala edo hiru dimentsioko eredua aztertzen eta sortzen jarraituko da. Biki digital hori etorkizuneko tresna bezala ulertzen da, lurraldeari lotutako informazioaren kudeaketa optimizatua ahalbidetuko duena eta aldundiko sailek barnean zein herritarrek planteatutako hainbat erronkari erantzuteko aukera emango duena.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	

H5.2 Araban funtzionario publiko moderno eta eguneratua

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J5.2.1 Plantilla egonkortzeko prozesuarekin jarraitzea eta belaunaldien arteko erreleboari erantzutea	Arabako Foru Aldundian bitartekotasuna murrizteko erronkaren aurrean, eta zerbitzuak ematerakoan ahalik eta kalitate onena bermatzeko asmoz, **foru-plantilla egonkortzeko prozesuarekin** jarraituko da. Horretarako, lan-gune bikoitza planteatzen da; batetik, Covid-19aren pandemiak moteldutako konpromisoak beteko direla bermatuko da, eta, bestetik, belaunaldien arteko erreleboari erreparatuko zaio. Hala, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa-egituraren jarraipena eta sendotzea ziurtatzea espero da.	Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa	
J5.2.2 Funtzio eta zereginen azterketa prestatzea	Lurraldearen errealitatera azkar egokitzea eskatzen duen ingurune aldakorraren aurrean, Arabako Foru Aldundia barne-azterketako prozesu sakonean murgilduta dago, zerbitzu publiko gisa bere gain hartu behar dituen eskakizun berriei ahalik eta modu eraginkor eta efizienteenean erantzuteko. Horrela, funtzionamendu operatiboaren bikaintasuna lortzeko, **funtzioen eta zereginen azterlana** egingo da, Aldundian erantzukizunen banaketa optimoa ezarri ahal izateko.	Enplegu, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa	
J5.2.3 Laneko arriskuen prebentzioaren garapena (fisikoak eta psikosozialak)	Arabako Foru Aldundiko langileen osasuna eta ongizatea lehentasunezkoak dira. Horrela, laneko arriskuen prebentzioaren arloko prebentzio-neurri zehatzak garatzen jarraituko da, alderdi fisikoei zein psikosozialei helduz, eta lan-ingurune segurua eta osasungarria ziurtatuz. Horrek erakusten du, gainera, Arabako Foru Aldundiak konpromiso sendoa duela Administrazio Osasungarriaren irizpideak betetzen direla bermatzeko; irizpide horiek Europako politikaren parte dira laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Adibidez, Covid-19 pandemiaren ondoren lan-modalitatearen aldaketetan izandako esperientzia positiboaren aurrean, **Telelana Hobetzeko Plana** ezarriko da, fokua lan-osasunaren prebentzioan eta deskonexio digitalaren sustapenean jarrita.	Enplegu, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa	
J5.2.4 Arabako Foru Aldundian euskararen erabilera normalizatzeko planaren diseinua eta ezarpena	EAEn euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunaren esparruan, Arabako Foru Aldundian **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana** jarriko da abian, erakundean euskararen erabilera areagotzen jarraitzeko, bai herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuan, bai foru-erakundearen barne-eginkizunetan, hori guztia herritarren hizkuntza-eskubideak betetzen direla ziurtatuz.	Enplegu, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioa	

H5.3 Araban gobernu irekia

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J5.3.1 Administrazioko baliabideak eta prozesuak optimizatzeko barne-berrikuntza	Arabako Foru Aldundian erabilgarri dauden baliabideen erabilera maximizatzeko, egungo prozesuak hobetzeko ikuspegi proaktiboa ezarriko da, bai barne-kudeaketari dagokionez, bai prozesuetarako eta zerbitzuetarako eskaerak emateari dagokionez. Horretarako, garrantzitsua izango da izapideen digitalizazioa bultzatzea, egungo programa informatikoak eguneratuz edo beharrezkotzat jotzen diren programa berriak ezarriz, betiere administrazioak garatutako izapideen eraginkortasun operatibo handiagoa ahalbidetzen badute. Gainera, proiektu giltzarri bat garatuko da, biki digitala sortuko duena. Horrela, alde batetik, aurrekontu-informazioaren sorreran, aurkezpenean eta eskuragarritasunean hobekuntza esanguratsuak ezartzearen garrantzia aitortuta, egungo **Aurrekontuei buruzko Informazio Tresna** hobetzeko lan egingo da, informazioaren bilketa errazteko eta datuen azterketa modu eraginkorrago eta adimentsuago egin ahal izateko. Gainera, tresna horren bidez, interes-talde guztiek gardentasuna eta informazioaren ulermena bermatuta izatea lortu nahi da. Bestalde**, Foru Aldundiaren administrazio-prozesuak sinplifikatuko dira,** administrazio-kudeaketako prozeduren konplexutasuna txikiagotzearen bila. Adibidez, prozesuak estandarizatzea, araudiak argitzea eta zerbitzu-eskaeren araudian sartzen diren izapideak sinplifikatzea, pleguak eta lizitazioak idaztea, edo laguntza ekonomikoa izapidetzean bai prozedura arinagoak erantzun-denbora laburragoak sortzea. Sailen arteko koordinazioa indartzea eta hobetzea lehentasunezko helburua izan behar da, AFAko langile guztien barne-lana erraztuko baitu, herritarrekiko harreman-prozesuak optimizatuko baititu eta zerbitzu publikoak modu eraginkorragoan ematea ahalbidetuko baitu.	Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamendua	
J5.3.2 Administrazio publikoaren gardentasuna, erantzukizuna eta osotasuna sustatzea	Informazio egiazkoa eta objektiboa ematea eta kontu-emate akatsik gabea eta arduratsua egitea funtsezkoa da arabarrek administrazio publikoaren jarduera eta funtzionamendua modu errazean ezagutu ahal izan dezaten eta burutzen diren ekintzak kontrolatu ahal izan ditzaten. Helburu hori lortzeko, Arabako Foru Aldundiak aurrera jarraituko du gardentasunari **buruzko 1/2017 Foru Arauaren aplikazio irmo, zehatz eta eraginkorra bermatzeko**, eta haren **estaldura toki-administrazio guztietara zabaltzeko**. Era berean, gobernu onerako bidean aurrera egiten jarraitu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiak kode etikoaren kultura berretsiko du, **kargu publikodunen eta sektore publikoko ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodea indartuko da**, eta kode berriak aktibatuko ditu, hala nola kontratazio publikoarena edo enplegatu publikoena. Gainera, **aldizkako kontu-emateak**, **aurrekontu-kontroleko mekanismoa** eta **gobernu-ekintzako mekanismoa** egingo dira, Foru Aldundiak zorrotz, eraginkortasunez eta gardentasunez jardun ahal izan dezan ekitaldi bakoitzeko diru-sarrera, inbertsio eta gastuetan. Azkenik, informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokionez, **herritarrekiko hedapen-tresna eta hedabide berriak jarriko dira**, herritarren beharretara egokituak, haien jarduera-eremuei eta betebeharrei buruzko informazio guztia lortu ahal izateko.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	

H5.3 Araban gobernu irekia

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
A5.3.3 Elkarlaneko gobernantza	Funtsezkoa da gobernu irekian eta gobernantza kolaboratiboan sakontzea gizarte gardenagoak, parte-hartzaileagoak eta eraginkorragoak eraikitzeko. Informaziorako sarbidea ematean, herritarrak prozesu politikoan inplikatzean eta gobernuaren eta gizartearen arteko lankidetza ahalbidetzean, erakundeekiko konfiantza eta legitimitatea indartzen dira, eta arazo konplexuei modu integralagoan heltzeko aukera ahalbidetzen da. Arabak kudeaketaren berrikuntzaren aldeko apustua egiten jarraitu behar du eta, horretarako, funtsezkoa da oparotasun partekatuaren bidea lantzen lagunduko duten gobernantza-eredu berriak sustatzea, hala nola **elkarlaneko gobernantza**. Eredu horrek, parte-hartzean, entzute aktiboan, gardentasun eraginkorrean, datuen kudeaketan eta osotasun administratiboan oinarrituta, entzuteko eta hausnartzeko hainbat bide artikulatzea ahalbidetzen du, aliantzan lan egiteko eta, horrela, bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko. Horretarako, Arabako Foru Aldundiak **entzute aktiboko eta gobernantza aurreratzaileko eta gizartearekiko lankidetzako prozesuak aktibatzearen aldeko apustua** egingo du, deliberazio-prozesuak suspertzeko eta aurrekontu parte-hartzaileen edizio berriak egiteko.	Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza	

H5.4 Araban Ogasun modernizatua eta zerga-sistema justu eta solidarioa

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J5.4.1 Ogasunaren kudeaketa-prozesuen eraldaketa	Gaur egungo zerga-erronken aurrean Sailak duen gardentasuna eta erantzuteko gaitasuna hobetzeko, Arabako Foru Aldundiak Foru Ogasunaren eraginkortasuna areagotzearekin zuzenean lotutako hainbat ekintza jarriko ditu abian. Horrela, **Arabako zerga sistemaren modernizazioa** egingo da. Ekimen hau teknologia digital aurreratuak txertatzean oinarrituko da, dagoen zerga-sistema eraldatu eta optimizatzeko, bai eta datuen tratamendua optimizatzeko ere, informazio fiskala modu eraginkorragoan biltzeko eta erabiltzeko aukera emanez, formularioetan oinarritutako prozesuak erroldetan oinarritutako prozesuetara eraldatuz. Bestalde, **iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko baliabide teknikoak hobetzen jarraituko da**, TicketBAI bezalako proiektuak bultzatuz, jarduera ekonomikoen diru-sarreren jarraipena egiteko eta zerga-betebeharrak burutzea errazteko.	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	
J5.4.2 Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren eraginkortasuna hobetzea	Ildo horretan, sailaren zereginen kudeaketan eta izapidetzean bikaintasuna bermatzeko, beharrezkoa izango da Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren gaitasun operatiboa indartzea. Horrela, **Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzaren egitura SAP sistema ekonomiko-finantzario berrira egokitzeko** prozesua abiaraziko da, barne-prozesuak digitalizatzeko eta optimizatzeko trantsizio leun eta eraginkorra ziurtatuz. Gainera**, Arabako Foru Aldundiaren ezohiko gastuak murrizteko Foru Eraginkortasunerako Plana** egingo da. Beraz, Foru Aldundiaren barruan plan integrala sortzea da helburua, eraginkortasun-neurriak eta kostuak murrizteko neurriak ezar daitezkeen eremuak identifikatzeko. Bestela, **Foru Aldundian administrazio-kontratazioa hobetzeko** ekintza espezifikoa garatuko da, erakundearen barruan kontratazio administratiboko prozedurak indartu eta optimizatuko dituena.	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	
J5.4.3 Ondarearen kudeaketa hobetzeko eredua ezartzea	Sailerako aurreikusten diren aldaketen eta garapenen aurrean, garrantzitsua izango da, halaber, Foru Aldundiaren ondarea eraginkortasunez kudeatzeko eredu integrala sortzea eta ezartzea. Horrek berekin ekarriko luke ondare-aktiboen eta ondare-baliabideen azterketa sakona egitea, haien kudeaketa eta mantentzea hobetuko duten estrategiak garatzeko.	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	

H5.4 Araban Ogasun modernizatua eta zerga-sistema justu eta solidarioa

Jarduera	Jardueraren deskribapena	Sail Arduraduna	Lotutako GJHak
J5.4.4 Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuak 2030 Agendarekin eta GJHekin lerrokatzea	Garapen iraunkorra Foru Aldundiaren zeharkako ardatzetako bat izanik, ezinbestekoa da aurrekontu-plangintza GJHekin lerrokatzea eta Nazio Batuen printzipioak eta jomugak integratzea. Aurrekontuek funtsezko zeregina betetzen dute GJHak gauzatzeko, eta, beraz, lerrokatze horrek berekin ekarriko du zenbait ekintza inplementatzea, hala nola aurrekontuak zehatz-mehatz berrikustea ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-jasangarritasunaren printzipioak islatzeko, erkidegoaren ongizatea sustatuko duten baliabide optimoak esleitzea, eta jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak esleitzea aurrekontuak 2030 Agendarekin eta GJHekin lerrokatzearen eragina neurtzeko.	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	
J5.4.5 Zor biziaren iraunkortasuna	Era berean, Arabako lurraldearen finantza-egonkortasuna eta ongizate ekonomikoa lortzeko, beharrezkoa izango da Aldundiaren zor biziaren kudeaketa ezin hobea bermatzea. Horretarako, lehentasunezko ekintzatzat hartuko dira **Zor Bizia Murrizteko Politikarekin jarraitzea** eta **Foru Aldundiaren kreditu-kalifikazioa finkatzea**. Horrela, Foru Aldundiaren Zor Bizia Arabako Lurralde osoaren epe luzerako finantza eta garapen iraunkorreko helburuekin lerrokatzea espero da.	Ogasuna, Finantza eta Aurrekontuak	

Proiektu Estrategikoak

araba álava
foru aldundia diputación foral

LEGEALDIKO PROIEKTU ESTRATEGIKOAK

Arabako Foru Aldundiak Arabako lurraldearen eta bertako biztanleriaren aurrerabidea eta ongizate iraunkorra lortzeko lan egiteko konpromisoa du, eta, horretarako, lortu nahi dugun Lurraldearen ikuspegi hori lantzen jarraituko du, Gobernuaren denbora-horizontea gaindituz.

Horregatik, legegintzaldi honetan, aurreko aldian hasitako zenbait proiektu estrategiko lantzen jarraituko dugu, lortu nahi dugun ikuspegia lortzen lagunduko dutenak, industriaren eraldaketa- eta modernizazio-prozesura bideratuta, lurraldeak lidergo-posizioetan jarrai dezan.

EDARIAK ETA ARDOA DRINKS & WINE CAMPUS (EDA)

Edariak eta Ardoa Drinks & Wine Campus proiektuak diziplina arteko proiektu bakarra izan nahi du, nazioarteko proiekzioa izango duena, eta ardoaren eta edarien sektorea indartzeko gai izango dena, prestakuntzaren, ikerketaren, berrikuntzaren eta ekintzailetzari emandako babesaren bidez. Basque Culinary Centerrek sortu eta Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak sustatutako mahastizaintzako eta ardogintzako prestakuntza-gunea izango da.

HELBURUAK

- Berrikuntza, ekintzailetza eta jasangarritasuna sustatzea ardoaren eta edarien balio-katean, enpresei eta erakundeei osagai bereizgarria emanez negozioen, produktuen eta zerbitzuen diseinuan, ikuspegi lokalarekin eta globalarekin
- Garapen ekonomikoa eta soziala sortzea

XEHETASUNAK

Zentroak bi egoitza izango ditu, bata Gasteizen eta bestea Arabako Errioxan. Gasteizko egoitza Lakuan kokatuko da, eta edarien unibertsoaren ikuspegia garatuko du, ardoaren mundua ardatz izango duen Guardiako egoitzaren ikuspegi osagarri bezala.

EDAk 2026ko irailean jasoko ditu lehen ikasleak, baina jarduera 2024an hasiko da, tailerren eta bestelako ekimenen bidez.

BASQUEVOLT INNOVATION CENTER

Euskadin erreferentziazko zentroa da belaunaldi berriko egoera solidoko bateria-gelaxken ekoizpena garatzeko.

Ekimen hori estrategikoa da lurraldearentzat, aukera erabakigarria baita Araba Europa mailako baterien ekoizpenean gune protagonista gisa kokatzeko.

HELBURUAK

- Mugikortasun elektrikorako teknologia berritzaileak garatzea.
- Jasangarritasun energetikoa sustatzea, irtenbide aurreratuen bidez.
- Lankidetza publiko-pribatua sustatzea bateriak garatzeko.
- Lurraldearen industria-trantsizioa erraztea automobilgintzaren sektorean.

XEHETASUNAK

"Basquevolt" -ek bere elektrolito konposatuko teknologia patentatua garatu eta kokatu nahi du, CIC energiGUNEk eboluzionatua. Gaur egun merkatuan eskaintzen diren elektrolito likidozko baterietatik bereizten da dentsitate energetiko, segurtasun eta jasangarritasun handiagoa eskaintzen duelako. 2024. eta 2025. urteak kritikoak izango dira prototipo-gelaxkak garatzeko eta, ondoren, ekoizpen-lerro pilotua abian jartzeko, 2027ra begira serieko lehen bateriak egiten hasteko.

MOBILITY LAB

Mobility LAB
Vitoria-Gasteiz

Hiri-mugikortasunaren eta logistikaren arloko berrikuntza-gunea, irtenbide berriak probatzeko eta Arabako ekonomia-sarearen lehiakortasuna bultzatzeko sortua.

Lurraldean lotutako joera berriak aztertu, probatu eta aplikatzeak dakarren guztiaren epizentroa izan nahi du.

HELBURUAK

- Lurraldean berrikuntza erraztea mugikortasunaren eta logistikaren arloan.
- Mugikortasun iraunkorreko irtenbide berritzaileak testatzea.
- Mugikortasunaren eta logistikaren ekosistemako eragile publiko-pribatuak konektatzea.
- Lotutako profil berrien prestakuntza-beharrak identifikatzea.

XEHETASUNAK

Mobility Lab da Arabako kokapen estrategikoa mugikortasun jasangarria bultzatzeko duen ibilbidearekin, eskura dauden azpiegiturekin eta bertan diharduten sektoreko erreferentziazko agenteen kopuru zabalarekin lotzeko aukera ematen duen nukleoa. Hiri-mugikortasunaren eta garraioaren eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzea ahalbidetzen duten hainbat irtenbide aurreratu sustatzen laguntzen duten faktoreak.

ADVANCE PHARMA DEVELOPMENT

Farmazia-terapia aurreratu pertsonalizatuak garatzera bideratutako ikerketa-proiektua da.

Pediatria, zahartze osasuntsua, medikuntza birsortzailea eta ehunen ingeniaritza dira lehentasunezko eremuak farmazia-industriari eta osasun-sektoreari zerbitzua eman ahal izateko.

HELBURUAK

- 3D inprimaketako eta bioinprimaketako teknologien ikerketa bultzatzea.
- Osasunaren eta medikuntzaren arloan lankidetza publiko-pribatua sustatzea.
- Terapia eta sendagai berrien aurrerapen zientifiko-teknologikoan laguntzea.
- Farmazia-produktuen garapenean eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzea.

XEHETASUNAK

Zentroak ikuspegi duala du oinarrizko ikerketa orientatuan eta ikerketa aplikatuan, eta hainbat azterketa-eremu besarkatzen ditu. Batez ere, medikamentu berrien 3D inprimaketan zentratzen da, eta hainbat behar klinikotara egokitutako dosiak, formak, tamainak eta askapen-profilak aztertzen ditu, baita sendagaien disoluzioan eta askapenean ere. Gainera, arreta pazientearengan jartzen duten terapietan, sendagai pertsonalizatuetan eta poli-sendagaien erabileran jartzen du arreta. Horri gehitu behar zaizkio, halaber, gailu medikoen 3D inprimaketa edo bio-inprimaketa.

BASQUE AUTOMOTIVE MANUFACTURING CENTER (BAM)

Gune horrek I+G+b bultzatzen du sektore autopropultsatzailerako teknologia berrien garapenean, batez ere ibilgailu elektrikoaren teknologiari dagokionez.

Zentroak bikaintasun-ikerketa garatzeko aukera emango du, enpresen, agente teknologikoen eta administrazioaren arteko lankidetza publiko-pribatuaren eskeman.

HELBURUAK

- Automobilgintzako balio-katea eraldatzea, fabrikazio-teknologia aplikagarriak garatuz.
- Sektorean inplikatutako eragile publiko-pribatuak espazio berean batzea.
- Sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna sustatzea lurraldean.

XEHETASUNAK

Automobilgintzaren sektorerako erreferentziazko zentro gisa, berrikuntzaren sustapenean eta etorkizuneko erronka teknikoak konpontzeko ekimen estrategikoen lidergoan zentratzen da. Horretarako, ideiak eta ezagutza trukatzeko ekosistema sortzen du, baita azken batean industrializatu daitezkeen proiektu korporatiboak ere. Horretarako, eragile elkartuei ibilgailuen belaunaldi berriaren, elektrifikatuen eta autonomoen industrializazio digitalizatuaren artearen egoeraz jabetzea ahalbidetuko dieten prozesu eta teknologiak lantzen ditu.

Plan Estrategiko Sektorialak eta Ekintza Esanguratsuak

araba álava
foru aldundia diputación foral

Kultura eta Kirol Saila

Plan Sektorialak

1. Kultura Plana
2. Kexaako Multzo Monumentalaren Zaharberritze, Kontserbazio eta Mantentze Plana
3. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Lege Berria Ezartzeko Lan Plana
4. 2024-2028 Gazte Ekintza Plana
5. Gazteen aisialdia okupatzeko Jarduera Plana

Ekintza esanguratsuak

- Kultura Araba Bulegoa programa
- Arabako Kultura Batzordea sortzea
- "Topaketak" prestakuntza-programa
- Arabako kirolaren egoeraren eta eraginaren diagnostikoa
- Denon Eskola programa
- Neska eta Kirola programa
- Emakumeen kirolerako dirulaguntzak
- Arabako Gazte Partaidetzarako Lurralde Kontseilua eraldatzea, bere proaktibitatea handitzeko
- “HITZ KOLPEZ" proiektua

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saila

Plan Sektorialak

1. Aiaraldea Eskualdeko Plan Estrategikoa
2. Arabako Hornikuntza eta Saneamenduko Plan Zuzentzailea
3. Arabako Azpiegitura Berdeen Plana
4. Klima Araba 2050 Estrategia

Ekintza esanguratsuak

- Ekintzailetzarako erreferentziazko guneak, udalekin, koadrilekin eta BIC Arabarekin lankidetzan
- "Industria 4.0. – Araba 4.0" programa berria
- Deskarbonizazio Industrialaren aldeko Arabako Aliantza
- "Araba Talent" eta "Basque Talent" programak
- Prestakuntza-programa berriak.
- Basquevolt-CIC Energigune, Robotekin elkartea, Basque Automotive Manufacturing Center, Mobility Lab, Advanced Pharma Development
- Araba Quantum
- Arabako Hondakinen Partzuergoa sortzea

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Foru Administrazioaren Saila

Plan Sektorialak

1. Logistikari, ostalaritzari eta turismoari lotutako Prestakuntza Plana
2. Gazteen enplegagarritasuna sustatzeko Plana
3. Landa-merkataritza bultzatzeko Plan Integrala
4. Merkataritza-jarduera sustatzeko Plana
5. Arabako Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana
6. Telelana hobetzeko Plana

Ekintza esanguratsuak

- Laneratzeko Prestakuntza Programa
- Gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonentzako Prestakuntza Programa
- Arabako enpresetan master amaierako lanak egiteko Kontratazio Programa
- *In situ* izango den Merkatarientzako Prestakuntza Digitaleko Programa
- Merkataritza leialtzeko Programak
- Belaunaldien arteko Errelebo Programa
- Saltokien bideragarritasun eta mantentze Programa
- Turismo-produktu propioa, benetakoa eta bereizgarria sortzea
- Foru eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko Proiektuak
- Arabako Foru Aldundiaren Estrategia Digitala

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila

Plan Sektorialak	Ekintza esanguratsuak
1. Araba digitala Plana	• Lurraldearen Digitalizazio Eskola • IKTetako prestakuntza-gela irekiak • Geoaraba Proiektua • Estaldura mugikorra handitzea Arabako "Zona Zuriak" deiturikoetan • 5G zerbitzuen instalazioa indartzea • Etxebizitzak birgaitzeko Programa • Garraiorako deialdiak

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Gizarte Politiken Saila

Plan Sektorialak

1. Zainketen agenda Araba 2030
2. GOFE berrantolatzeko eta modernizatzeko Plana
3. INDESA 2024 – 2027 Plan Estrategikoa
4. Babesik gabe dauden adingabeei arreta emateko protokoloak eguneratzea
5. Arabako Gizarte Zerbitzuen 2022/2023 Ikuskapen Planaren eta 2024/2027 Plan berriaren ebaluazioa
6. Zaintzaileentzako eta Familientzako Baliabideen Gida Plana

Ekintza esanguratsuak

- GIZAREA Egoitza Arretarako Eredua
- Harremanetan oinarritutako arretari buruzko Eskuliburua
- "Etxean Bai" Programa Pilotua
- Adimen desgaitasuna eta garapen-nahasmenduak dituzten pertsonen zahartzeari buruzko Ikerketa Zentroa.
- *"Housing First"* programa
- *Think Tank* Arabako Gizarte Politiken Etorkizunari buruz
- Hitzarmenak ikastetxeekin, prestakuntza duala sustatzeko
- Esku-hartze integralerako Zainduz programa
- *“Araba a punto”*

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Plan Sektorialak	Ekintza esanguratsuak
1. Arabako Foru Aldundiaren ezohiko gastuak murrizteko Foru Eraginkortasunerako Plana	• Zor bizia murrizteko politika • Ondarearen kudeaketa hobetzeko Eredua

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Berdintasuna, Euskara eta Gobernantza Saila

Plan Sektorialak

1. Araban euskararen erabilera sustatzeko 2023-2027 Plan Estrategikoa

Ekintza esanguratsuak

- Berdintasunerako baliabideen Mapa interaktiboa
- Giza eskubideen arloko Trebakuntza- eta Prestakuntza Programak
- Memoria historikoa berreskuratzeko eta bidegabeko indarkeriaren biktima guztiak aitortzeko Politika aktiboa
- Kode etiko berriak aktibatzea, hala nola kontratazio publikoarena edo enplegatu publikoena
- Estrategia digitala, lehen mailako ekimenak eta proiektuak koordinatu ahal izateko

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila

Plan Sektorialak

1. ALHko Mugikortasun Iraunkorreko II. Plana
2. Arabako Errepideen Plan Integrala 2016-2027 (PICA)
3. Zarataren aurkako Ekintza Plana eta izen bereko II. Plana
4. Bide Zoruen Urteko Plana
5. Prebentzio eta Neurri Aringarrien Plana
6. Errepideak Modernizatzeko Plana 2023-2027
7. Arabako Bizikletaren Estrategia

Ekintza esanguratsuak

- Arabako Mugikortasun Agintaritzaren Partzuergoa sortzea
- Arabako garraio publikoaren tarifa-integrazioa garatzea
- Arabako Bizikleta Bideen Sarea sortzea
- ARABAT birdimentsionatzea
- Alavabuseko emakidak eta eskualdeko garraio-zerbitzua berritzea

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

Nekazaritza Saila

Plan Sektorialak

1. Arabako Lurralde Historikoko Nekazaritza Jardueraren Lehiakortasuna Hobetzeko Plana 2024-2030
2. Arabako Lurzorua Leheneratzeko eta Higadura Murrizteko Plana
3. Biderbi: Arabako Nekazaritza Ekologikoa Sustatzeko Plana
4. Ehiza Kudeaketa Iraunkorreko Plana
5. Lehen Sektorea Gaztetzeko Plan Integrala
6. Mahastizaintza eta Ardogintza Sektoreko Plan Estrategikoa

Ekintza esanguratsuak

- Produktu berrien ezarpena sustatzeko Laguntza Programa
- Eskalmendiko Agroekologia Ekintza Taldea
- Animaliak garraiatzeko ibilgailuak desinfektatu eta garbitzeko Euskadiko Lehen Zentroa eraikitzea
- Zerbitzu Mankomunatuen Kooperatibak sortzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako lanak egiteko
- *Smart Farming* Araba programa
- Arabako Mahasti Azpimarragarriak kontzeptuaren garapena
- EDA, Edariak eta Ardoa Drinks & Wine Campus zentroaren garapena

***Oharra:** *Gobernu Plana 5 ardatzez, 35 helburuz eta 99 lehentasunezko jarduera-lerroz osatuta dago, eta Foru Aldundia eta haren mendeko erakundeak osatzen dituzten sailen mende dauden plan sektorial batzuekin lotuta dago..*

araba álava
foru aldundia diputación foral